

GALAXY NEXUS

Android 4.0 teknologia mugikorraren plataforma
Erabiltzailearen eskuliburua

Copyright © 2011 Google Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Google, Android, YouTube eta beste marka erregistratu batzuk Google Inc enpresarenak dira.

<http://www.google.com/permissions/guidelines.html> webgunean dago Googleren marka erregistratuen zerrenda. Gainerako markak eta marka erregistratuak beren jabeenak dira. Googleren aplikazioen, zerbitzuen eta funtzioen eskuragarritasuna aldatu egin daiteke herrialdearen, operadorearen, telefono-modeloaren eta fabrikatzailearen arabera.

Hastea 4

- Telefonoa konfiguratzea 4
- Zergatik erabili Googleren kontu bat? 5
- Desplazamendua 6
- Ukitzea eta idaztea 9
- Blokeo-pantaila erabiltzea 11
- Telefonoan eta Interneten bilaketak egitea 13

Etxean bezala sentitzea 14

- Pantaila-atzealdea aldatzea 14
- Tonua eta beste soinu batzuk ezartzea 15
- Dei bat egitea 17
- Kontaktuak telefonora pasatzea 18
- Aplikazioak antolatzea eta horiekin lan egitea 20
- Widget-ak gehitzea 22
- Jakinarazpenak administratzea 23

Aplikazio batzuk probatzea 24

- Gmail abiaraztea 24
- Pertsonak bilatzea 26
- Zure egutegia administratzea 28
- Zure kamera erabiltzea 29
- Transferentzia-pantailako edukia 31
- Deskargak administratzea 32

Errendimendua doitzea 33

- Bateriaren iraupena optimizatzea 33
- Datuen erabilera optimizatzea 35
- Memoriaren erabilera optimizatzea 40

Telefonoa aplikazioa erabiltzen ikastea 43

- Biltegitratutako zenbakiak markatzea 43
- Deiei erantzutea eta deiak desbideratzea 45
- Dei-erregistroarekin lan egitea 46
- Internet bidezko deiak egitea (SIP) 47
- Ahots-postontzia entzutea 49
- Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak 50

Testua idaztea eta editatzea 53

- Teklatua erabiltzea 53
- Ahots bidez testua idaztea 56

Sareetara eta gailuetara konektatzea 57

Mugikor-sareetara konektatzea 57

WiFi sarera konektatzea 59

Bluetooth gailuetara konektatzea 64

Teklatura, sagura eta beste gailu batzuetara konektatzea 69

Ordenagailu batera USBaren bidez Windowsekin konektatzea 71

Ordenagailu batera USBaren bidez Macintoshekin konektatzea 72

Telefonoaren datu-konexioa partekatzea 73

Sare pribatu birtualetara konektatzea (VPN) 77

Hegazkin-modua eta sareko beste konfigurazio-parametro batzuk kontrolatzea 80

Ahots eta testu bidezko bilaketa 81

Googleko bilaketak hobeto definitzea 81

Ahots-ekintzak erabiltzea 86

Ahots-ekintzen komandoak 88

Kontuak administratzea 91

Kontuak eranstea edo ezabatzea 91

Kontuak sinkronizatzeko aukerak konfiguratzea 94

Segurtasun-kopiak egiteko aukerak aldatzea eta berrezartzea 97

Telefonoa babestea 99

Pantailaren blokeoa konfiguratzea 99

Zure telefonoa enkriptatzea 101

Ziurtagiriekin lan egitea 103

Hastea

Telefonia konfiguratzeko

Botoiak, kargagailua, bateria eta telefonoaren hardwarearen beste funtzio batzuk erabiltze-ari buruzko informazioa jasotzeko, ikus telefonoarekin datorren erreferentziako gidaliburu inprimatu dezakezu.

Telefonia pizten duzun lehenengo aldiaren, ongi-etorriko pantaila bistaratuko zaizu

- ▶ Beste hizkuntza bat hautatzeko, ukitu menua.
- ▶ Telefonia konfiguratzeko, ukitu **Hasi** ikonoa eta segi jarraibideei.

Zenbait pantailak lagundu egingo dizute konfigurazio-prozesuan. Gmail-eko kontu bat baldin baduzu, erabili Gmail-eko zure helbidea eta pasahitza hala eskatzen dizunean. Gmail-eko konturik edo Googleren beste konturik ez baduzu, sortu bat.

Konfigurazio-pantailan aurrera egin ahala, zenbait pauso alde batera uzteko aukera duzu. Alde batera utzitako aukera konfiguratzeko edo informazio gehiago eskuratzeko, ikus gai hauek:

[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)

[Mugikor-sareetara konektatzea](#)

[WiFi sarera konektatzea](#)

[Google+en laguntza](#)

[Kontuak eranstea edo ezabatzea](#)

Zergatik erabili Googleren kontu bat?

Googleren kontu batek aukera ematen dizu zure informazio pertsonala antolatzeko eta edozein ordenagailutatik edo gailu mugikorretik ikusteko:

- ▶ **Ez galdu berriro zure kontaktuak.** Zure telefonora Googleren kontu batekin sartzen bazara, Kontaktuak aplikazioan kontu horrekin lotzen dituzun kontaktu guztien segurtasun-kopia egiten da automatikoki. Beraz, beti egongo dira eskura Gmail-en zure kontutik, edozein ordenagailutatik.
- ▶ **Sinkronizatu eta sortu gutiaren segurtasun-kopiak.** Mezu elektronikoa bat zirriborroan sortzen baduzu, kontaktu baten telefono-zenbaki bat eransten baduzu, egutegira gertaera bat sartzen baduzu edo argazki bat ateratzen baduzu, Googlek zure ekintzen segurtasun-kopia bat sortzen du etengabe eta Googleren kontu berbera erabiltzen duzun beste edozein ordenagailurekin sinkronizatzen du.
- ▶ **Sar zaitetz edozein tokitatik.** Ikusi zure azken gertaerak egutegian, mezu elektronikoa, testu-mezuak edo sare sozialak, edonon zaudela ere, erabiltzen duzun edozein ordenagailutan edo edozein mugikorretan.
- ▶ **Eduki zure gauzak seguru eta eskura.** Googlek etenik gabe lan egiten du zure datu pertsonaletara beste inor ez sartzeko eta zuri bermatzeko haiek atzi ditzakezula behar dituzun unean eta tokian.

Erabili Googleren beste zerbitzu batzuk. Googleren zure kontuak, gainera, aukera ematen dizu Googleren gainerako aplikazioak eta zerbitzuak erabiltzeko (esate baterako, Gmail, Google Maps, Bilaketa, Android Market, YouTube, Google Talk, Centro de mensajes, eta abar).




Honekin lotutako gaia:

[Kontuak eranstea edo ezabatzea](#)

Desplazamendua

Telefonoa konfiguratzek bukatzen duzunean, pantaila nagusia agertzen da.


Pantailaren beheko aldean, hiru nabigazio-botoi ikusiko dituzu, beti erabil ditzakezunak. Zure telefonoan edozer egiten duzula ere, edozein unetan itzul zaitezke Pantaila nagusira edo aurreko pantailara:

Ikonoa	Izena	Deskribapena
	Atzera	Erabili duzun aurreko pantaila irekitzeko, beste aplikazio batekoa bada ere. Pantaila nagusiaren segurtasun-kopia bat sortutakoan, ezin zara zure historiara itzuli
	Hasiera	Pantaila nagusia irekiko da. Pantaila nagusia eskuinetik edo ezkerretik zabaldua ikusten baduzu, ireki erdiko pantaila nagusia.
	Azkena erabilitako aplikazioak	Azkena erabilitako aplikazioen miniaturako irudi-zerrenda irekitzen da. Aplikazio bat irekitzeko, uki ezazu. Aplikazio bat zerrendatik ezabatzeko, lerratu ezkerredera edo eskuinera.

Botoiak erabili gabe tarte labur bat egonez gero, baliteke puntu bihurtzea edo desagertzea, uneko aplikazioaren arabera. Berreskuratzeko, ukitu haren kokapena.

Nabigazio-botoien gainean, gogokoen ontzia dago:

Ontzian dauden aplikazioen ikonoak pantaila nagusi guztietan daude bistan.

Erdiko Todas las aplicaciones  ikonoa beti ageri da. Uki ezazu aplikazio eta widget guztiak ikusteko.

Pantaila nagusiaren erdiko partean, karpetez gain, aplikazioen eta widgeten ikonoak egon daitezke.

- ▶ Aplikazio, karpeta edo widget bat irekitzeko, ukitu haren ikonoa.
- ▶ Pantaila nagusi osagarriak ikusteko, lerratu hatza bizkor ezkerrera edo eskuinera.



Pantailaren goiko aldean, honen antzeko zerbait ikusiko duzu:



Ezkerreko **egoera-ikonoek** jakinarazpenak bidali dizkizuten aplikazioak zein diren adierazten dute; adibidez, mezu bat jaso duzun edo bilera zer ordutan duzun.

▶ jakinarazpenak ikusteko, lerratu hatza beherantz, pantailaren goiko aldetik hasita.

Eskuineko **sistemaren ikonoek** adierazten dute sare-konexioaren edo haririk gabeko uneko konexioaren intentsitatea, bateria-maila, ordua eta abar.

Googleren bilaketa egoera- eta sistema-ikonoen azpian dago, eta zure telefonoan edo Interneten bilaketak egiteko aukera ematen du. Ukitu **Google** bilatu nahi dituzunak idazteko edo ahoz esateko.

Honekin lotutako gaiak:

[Jakinarazpenak administratzea](#)

[Aplikazioak antolatzea eta horiekin lan egitea](#)

Ukitzea eta idaztea

Erabili zure hatzak ikonoak, botoiak, menuak, pantailako teklatura eta ukipen-pantailako beste elementu batzuk manipulatzeko. Gainera, pantailaren orientazioa aldatu dezakezu.

Zerbait hautatzeko edo aktibatzeke, uki ezazu.

Zerbait idazteko (adibidez, izen bat, pasahitz bat edo bilaketa-hitz bat), ukitu non idatzi nahi duzun. Teklatu bat bistaratuko da, eremu horretan idazteko.

Beste ohiko keinu batzuk ere egin ditzakezu:

- ▶ **Luze sakatu:** pantailako elementu bat sakatu, eta ez altxatu hatza, nahi duzun ekintza gauzatu arte.
- ▶ **Arrastatu:** Luze sakatu elementu bat, une batez, eta, ondoren, hatza altxatu gabe, mugitu pantailan, helburuko lekura iritsi arte. Adibidez, pantaila nagusian lasterbideak birkokatzeke arrastatu ditzakezu.
- ▶ **Mugitu edo lerratu:** Bizkor mugitu hatza pantailaren gainean, hura ukitzean geldiuenerik egin gabe (bestela, elementu bat arrastatzen da). Adibidez, pantaila nagusi bat ezkerredera edo eskuinera lerratu dezakezu, beste pantaila nagusiak ikusteko.
- ▶ **Bi aldiz ukitu:** Ukitu bizkor bi aldiz webgune bat, mapa bat edo beste pantaila bat handitzeko edo txikitzeko. Adibidez, ukitu bi aldiz webgune bat nabigatzailean, handitzeko, eta ukitu berriro bi aldiz txikitzeko.
- ▶ **Handitu eta txikitu:** Aplikazio batzuetan (adibidez, mapak, nabigatzailea eta galeria), handitu eta txikitu egin ditzakezu, bi hatz pantailan aldi berean jarri eta elkartutakoan (txikitzeko) edo bereizitakoan (handitzeko).

- ▶ **Pantaila biratu:** Pantaila gehienetan, pantailaren orientazioa biratu egiten da gailuarekin, gailua mugituz gero. Pantailako konfigurazio hori aldatu egin dezakezu.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Gailua > Soinua eta jakinarazpenak


Ezarpenak > Gailua > Bistaratztea

Honekin lotutako gaia:

[Teklatua erabiltzea](#)

Pantailaren blokeoa erabiltzea

Informazio pertsonala babesteko, zure telefonoko blokeo-konfigurazioa ezar dezakezu:

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien Bistaratzean, ukitu  konfigurazio-ikonoa
- 2 Mugitu behera eta ukitu **Segurtasuna**
- 3 Ukitu **Pantailaren blokeoa**
- 4 Ukitu erabili nahi duzun blokeo-mota

Hemen blokeo-mota bat hautatu ondoren, blokeo-pantaila bat bistaratuko da pantaila aktibatzen den bakoitzean, eta eredu, PINa edo beste pasahitz jakin bat eskatuko dizu.

Garrantzitsua

Pantaila blokeatzeko aukerak gutxi gorabeherako ordenan bistaritzen dira, segurtasun-mailaren arabera; lehenak Bat ere ez eta Pasatu hatza dira, batere babesik ematen ez dutenak. Desbloqueo facial eta Eredua aukerak, gutxieneko segurtasuna ematen dute, nahiz eta aukera seguruak baino komenigarriagoak izan daitezkeen.

Pantaila blokeatzen denean telefonoa musika erreproduzitzen ari baldin bada, entzuten segitu dezakezu edo hautaketa eten dezakezu, desblokeatu beharrik gabe.

Pantaila blokeatuta dagoenean, jasotako deiei hiru modutan erantzun diezaiekezu. Ukitu telefono zuriaren ikonoa eta lerratu ikono hauetako baten gainean:



Deiei erantzutea

Dei-egilearekin hitz egiten hastea



Ahots-postontzira bidaltzea


Dei-egileari esatea ahots-postontzian mezua utz dezan



Mezu bat bidaltzea

Lehenetsitako testu-mezuen zerrenda irekitzea.
Dei-egilerari berehala bidaltzeko bat ukitzea

Iradokizuna

Telefonia aplikaziotik testu-erantzunak editatzeko, ukitu menuaren ikonoa  > **Ezarpenak > Erantzun bizkorrak.**

Honekin lotutako gaia:

[Pantailaren blokeoa konfiguratzeari buruz](#)

Telefonoan eta Interneten bilaketak egitea


Googleko bilaketak behar duzuna zure telefonoan edo webgunean aurkitzen lagun diezazuke:

▶ Pantaila nagusiaren goiko aldean, ukitu **Google** bilaketa-hitz bat idazteko edo sakatu Micrófono  botoia, hitza esateko.

Idatzi ahala, Googleren webeko bilaketarako iradokizunak bistaratzen dira bilaketa-koadroaren azpian, eta zure telefonoko emaitzak bistaratzen dira haren azpian (adibidez, aplikazioak eta kontaktuak).

Ukitu iradokizun bat berehala bila dezan, edo ukitu gezia hitza bilaketa-eremuan sar dadin, bilaketa berrabiarazi beharrik gabe.

Google-k zure telefonoan edo webgunean bilaketak egiteko modua aldatzeko:

- 1 Ukitu **Google**, pantailaren goialdean.
- 2 Ukitu menuaren ikonoa , pantailaren eskuinaldeko goiko izkinan.
- 3 Ukitu **Ezarpenak**
- 4 Ukitu **Telefonoko bilaketa**

Iradokizuna

Bilaketa-hitzak esateko aukera izateaz gain, ahots-ekintzak erabil ditzakezu kontaktuei deitzeko, toki jakin batera iristeko jarraibideak jasotzeko, mezuak bidaltzeko eta ohiko zeregin ugari egiteko.

Honekin lotutako gaiak:

[Googleko bilaketak hobeto definitzea](#)

[Ahots-ekintzak erabiltzea](#)

[Ahots-ekintzen komandoak](#)

Etxean bezala sentitzea

Horma-paperak aldatzea

Horma-paperak galeriako irudiak (kamerarekin ateratako argazkiak, Picasarekin sinkronizatutakoak eta abar), sistemak dituen irudi finkoak eta irudi bizidunak (animazioarekin edo zure kokapena jasotzen duen mapa batekin) izaten dira. Zure pantaila nagusietako atzealdean egoten dira.

1 Luze sakatu pantaila nagusian libre dagoen edozein toki. Aukera-zerrenda bat bistaratuko da.

2 Ukitu pantaila-atzealdearen jatorria

Galeria Aukeratu kamerarekin ateratako argazki bat edo gailuan deskargatutako bat.

Pantaila-atzealde biziduna Hautatu pantaila-atzealde bizidun bat desplazamendu-zerrenda batean.

Horma-paperak Hautatu aukeren irudi bat, edo ukitu irudi txiki bat, handiago ikusteko. Android Market-etik pantaila-atzealdeak deskargatu ditzakezu.

3 Pantaila-atzealde bat ezartzeko, ukitu **Onartu** pantailaren goiko aldean (Galeriako irudiak ikusteko) edo ukitu **Ezarri horma-papera**.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak


Ezarpenak > Gailua > Bistaratzea > Horma-papera

Tonua eta beste soinu batzuk ezartzea

Zure telefonoak soinuak eta bibrazioak ditu zurekin komunikatzeko: dei-tonuak, jakinarazpenak, alarmak eta nabigazioaren emaitzak. Edozein soinu pertsonalizatu eta horien bolumena kontrolatu dezakezu, eta musikaren, bideoen, jokuen eta beste aukera batzuen bolumena ere pertsonalizatu dezakezu.

Lehenetsitako dei-tonua aldatzea

Jasotzen ditugun deien dei-tonu lehenetsia aldatzeko:

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu  konfigurazio-ikonoa
- 2 Ukitu **Gailua > Soinua eta jakinarazpenak > Telefonoaren tonu-jotzailea**

Ukitu dei-tonua hura hautatzeko eta entzuteko. Ukitu Ados hautaketa berresteko.

Dei-egile baten dei-tonua ezartzeko, sartu pertsona horren kontaktu-txartelera, Kontaktatuak aplikazioan, ukitu txartel horren **menua**, eta, ondoren, **Ezarri tonua**.

Dei-tonua bibrazio moduan ezartzea

Zenbait aukera duzu zure telefonoko bibrazioa kontrolatzeko. Sarrerako deietarako bibrazioa erraz aktibatzeke edo desaktibatzeke, eman pauso hauek:



- ▶ Bibrazioa aktibatzeke, sakatu bolumena jaisteko tekla (telefonoaren alde batean), telefonoak bibratu arte. Berrito dei-tonu arrunta jartzeko, sakatu bolumena igotzeko bolumen-tekla.

Soinuaren beste konfigurazio batzuk aldatzea


Beste soinu eta bibrazio batzuk aldatzeko, sakatu Ezarpenak > Gailua > Soinua eta jakinarazpenak, eta ukitu nahi duzuna:

- ▶ **Bolumenak** aukeran, bolumen nagusia, musikarena, dei-tonuena, jakinarazpenena eta alarmena bereiz ezartzen dira. Hala ere, telefonoko bolumen-kontrol fisikoa erabil dezakezu erreproduzitzen ari den edozein soinuaren bolumena igotzeko edo jaisteko.
- ▶ Egin dar-dar deietan ere aukerak telefonoko **bibrazio-erantzunak** kontrolatzen ditu.
- ▶ **Ez molestatu** aukerak soinu guztiak desaktibatzen ditu.
- ▶ **Jakinarazpenen tonu lehenetsia** aukerak jakinarazpen bat jaso duzula ohartarazten du, baldin eta dagokion aplikazioan beste soinu bat jartzen ez badiozu.
- ▶ **Sistema** konfigurazio-parametroak zure telefonoarekin egiten dituzun ekintza estandarren soinu eta bibrazioak kontrolatzen ditu.

Dei bat egitea

1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu telefonoaren ikonoa .
Teléfono aplikazioak teklatuaren orde z zenbaki-zerrenda bat bistaritzen badu, lerratu ezkerrean edo ukitu  fitxa teklatura itzultzeko.


2 Sakatu teklak zenbakia sartzeko

3 Ukitu  teklatuaren azpian, zenbakia markatzeko

Deian, aplikazioz alda dezakezu (adibidez, informazioa bilatu dezakezu nabigatzailean). Egoera -barran, telefonoaren ikonoa berdez agertuko da deian.

Deian Deitu aplikaziora itzultzeko:

1 Pantailaren goiko aldetik behera lerratu, jakinarazpenak bistartzeko.

2 Ukitu deitzen ari zaren pertsonaren izena, telefonoaren ikonoaren ondoan. Uneko deia amaitzeko, ukitu  pantailaren beheko aldean.

Honekin lotutako gaiak:

[Biltegiratutako zenbakiak markatzea](#)

[Deiei erantzutea eta deiak desbideratzea](#)

Kontatuak telefonora pasatzea


Googlen kontu bat baldin baduzu, Googlek automatikoki egiten du kontu horretako kontaktu guztien segurtasun-kopia. Horrek esan nahi du zure kontaktuak beti egongo direla eskura webean, eta Android duen eta kontu hori ezarri zaion edozein telefonorekin sinkroniza daitezkeela.

Beraz, telefonoa galtzen baduzu, berri bat erosten baduzu edo mahai gaineko ordenagailu bat erabiltzen baduzu, zure kontaktuak uneoro edukiko dituzu eskura.




Zure telefonoko zenbakiak eta kontaktuei buruzko informazioa Googleko kontutik eskuratzeko zenbait modu daude:

- ▶ Inportatu zure kontaktuak zuzenean zure telefonora, SIM txarteletik. Ikus ondorengo jarraibideak.
- ▶ Erabili mahai gaineko ordenagailua helbide elektronikoak edo kontaktuak beste helbide elektroniko batetik zure Googleko kontura inportatzeko. Ikus [Posta elektronikoa eta kontaktuak inportatu](#).
- ▶ Erabili mahai gaineko ordenagailu bat Outlookeko edo Maceko helbide-liburuko edo antzeko aplikazioetako kontaktuak testu-fitxategi gisa esportatzeko, eta, ondoren, zure Googleko kontura inportatzeko mahaigaineko nabigatzaile baten bidez. Horrelako kasuetan sortzen diren ohiko fitxategi-formatuek .csv edo .vcard luzapena izaten dute. [Ikus CSV fitxategiak inportatzea edo vCard fitxategiak inportatzea](#).
- ▶ Erabili mahai gaineko ordenagailu bat zure kontaktuak testu-fitxategi gisa esportatzeko, eta, ondoren, telefonoan zuzenean inportatu. Ikus [Kontaktuak inportatu, esportatu eta partekatzea](#)

Aukeratzten duzun metodoa edozein dela ere, zure kontaktuak behin bakarrik inportatu behar dituzu. Googleren kontu bat erabiltzen hasten zarenean, zure kontaktu guztiak sinkronizatuta egongo dira, baita telefono edo gailu mugikor berri bat erosten baduzu ere: Zure kontaktuak ikusteko:

- ▶ Telefonoan: Erabili Kontaktua aplikazioa .
- ▶ Mahai gaineko ordenagailu baten nabigatzailean: Ikus google.com/contacts. Oraindik sar-tu ez bazara, zure Gmaileko kontua eta pasahitz bat eman behar dituzu.


SIM txarteletik kontaktuak inportatzeko:

- 1 Jarri kontaktuak dituen SIM txartela zure telefono berrian.
- 2 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ireki Personas aplikazioa .
- 3 Ukitu menuaren ikonoa  > **Inportatu/Esportatu**
- 4 Ukitu **SIM txarteletik inportatu**
Kontu bat hautatzeko eskatzen badizu, ukitu kontaktuak gehitu nahi dizkiozun kontu hori.
- 5 Kontaktua banaka inportatzeko, ukitu itzazu
Guztiak batera inportatzeko, ukitu menuaren ikonoa  > **Guztiak inportatu**.

Honekin lotutako gaia:


[Pertsonak bilatzea](#)

Aplikazioak antolatzea eta horiekin lan egitea

Zure aplikazio guztiak ikusteko, ukitu aplikazio guztien ikonoa , edozein pantaila nagusitan. Aplikazio guztien pantaila nagusia irekiko da. Hemen aplikazio guztiak ikus ditzakezu, baita Android Marketetik deskargatutakoak ere. Aplikazioen ikonoak pantaila nagusiaren edozein tokitara alda ditzakezu.

Aplikazio guztien pantailatik, hau egin dezakezu:

- ▶ **Pantaila batetik bestera mugitzeko:** lerratu ezkerrera edo eskuinera.
- ▶ **Aplikazio bat abiarazteko:** ukitu haren ikonoa
- ▶ **Aplikazio baten ikonoa pantaila nagusi batean jartzeko:** Luze sakatu aplikazioaren ikonoa, lerratu hatza eta, ikonoa nahi den tokian, altxa hatza, hura askatzeko.
- ▶ **Aplikazio baten ikonoa gogokoen ontzian jartzeko:** luze sakatu gogokoetako ikono bat eta lerratu ontzi horretatik atzeratzeko. Ondoren, erabili teknika bera beste toki batera eramateko.
- ▶ **Widget-ak ikusteko:** ukitu widgeten fitxa, aplikazio guztien pantailako goiko aldean.
- ▶ **Aplikazio gehiago eskuratzeko:** ukitu dendaren ikonoa.

Pantaila nagusian aplikazio baten ikono bat ezabatzeko, luze sakatu, mugitu hatzarekin pantailaren goiko aldera eta askatu aplikazioa Eliminar ikonoaren gainean .

Oharra


Aplikazio guztien pantailaren ikonoa  beti dago gogokoen ontzian; ezin da mugitu

Karpetak erabiltzea


Karpeta batean zenbait aplikazioren ikonoak konbina ditzakezu. Pantaila nagusian, askatu aplikazio baten ikonoa beste baten gainean, eta bi ikonoak konbinatu egingo dira.

Pantaila nagusitik, hau egin dezakezu:

- ▶ **Karpeta bat irekitzeko:** uki ezazu. Karpera ireki egiten da.
- ▶ **Karpeta baten izena aldatzeko:** ukitu haren izena.
- ▶ **Pantaila nagusian ikonoak mugitzeko:** luze sakatu eta mugitu.



Iradozikunak

- ▶ Gehien erabiltzen dituzun aplikazioen bilduma txikiagoa ikusteko, ukitu Google Apps karpeta, pantailaren beheko aldetik gertu. Gainerako karpetekin bezala, edukia pertsonalizatu dezakezu.
- ▶ aplikazio bat irekita duzula, normalean haren parametroak konfiguratu ditzakezu, pantailaren goiko edo beheko aldetik gertu dauden menuko ikonoaren  elementuak hautatzen badituzu.


Honekin lotutako gaia:

[Widget-ak gehitzea](#)

Widget-ak gehitzea

Widgetak zure aplikazioen leiho modukoak dira. Aplikazio guztien fitxan daude, eta zure pantaila nagusietara mugi ditzakezu.

Widget-ak ikusteko:

- 1 Pantaila nagusian, ukitu aplikazio guztien ikonoa .
- 2 Ukitu **Widgetak**, pantailaren goialdean.

Widget-en pantaila nagusitik, hau egin dezakezu:

- ▶ **Pantaila batetik bestera mugitzeko:** lerratu ezkerrera edo eskuinera.
- ▶ **Pantaila nagusira Widget bat eramateko:** Luze sakatu widget-aren ikonoa, lerratu hatza hura utzi nahi duzun tokira eta altxa hatza.

Widget-a aktibatu aurretik hautaketa gehiago egiteko eskatu diezazuke. Askatzeko tokirik ez badago, ezin da gehitu widget-ik pantaila nagusira.

Honekin lotutako gaia:

[Aplikazioak antolatzea eta horiekin lan egitea](#)


Jakinarazpenak administratzea

Jakinarazpenek informazioa ematen dute. Esate baterako: mezu berriak iristea, egutegiko gertaerak, alarmak, uneko gertaerak eta mugikorra WiFi gune gisa konfiguratu dela.

Jakinarazpen bat jasotzen duzunean, haren ikonoa agertzen da pantailaren goiko ezkerreko aldean. Soinuaren konfigurazioaren arabera, soinua ere entzun dezakezu.

- ▶ Jakinarazpenak ikusteko: lerratu hatza beherantz, pantailaren goiko aldetik hasita.
- ▶ Jakinarazpen bati erantzuteko: uki ezazu.
- ▶ Jakinarazpen bati kasurik ez egiteko: lerratu aldeetara.
- ▶ Jakinarazpen guztiei kasurik ez egiteko: Ukitu X goiko eskuineko ertzean.

Iradokizuna

Jakinarazpenen zerrenda irekita dagoenean, konfiguraziora sar zaitezke konfigurazio bizkorreko ikonoa  sakatuta, zerrendaren goiko aldean. Horrek aukera ematen dizu edozein pantailatik konfiguraziora bizkor sartzeko.

Jakinarazpenak bidaltzen dituzten aplikazio gehienek (adibidez, Gmail eta Google Talk) jakinarazpenak konfiguratzeko aukera ematen dute.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak


Ezarpenak > Gailua > Soinua eta jakinarazpenak

Aplikazio batzuk probatzea

Gmail abiaraztea

Gmail erabil dezakezu zure mezu elektronikoak irakurtzeko eta idazteko, edozein gailu mugikorretan edo nabigatzailetan. Zure mezu elektroniko guztiak beti egongo dira eguneratuta eta eskura, edozein tokitan ikusten dituzula ere.

Baina Gmailek ez du posta elektronikoa bakarrik. Gmailen zure izenak eta pasahitzak aukera ematen dizute Googleren aplikazio eta zerbitzu guztietara sartzeko. Esate baterako: Egutegia; Pertsonak, kontaktuen segimendua egiteko; Picasa, argazkiak biltegitatu eta antolatzeko; Google Reader, on line irakurtzeko; Googleren dokumentuak, dokumentuekin, kalkulu-orriekin edo marrazkiekin lan egiteko; eta beste hainbat.


- ▶ Gmail abiarazteko: Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu Gmailen ikonoa .


Gmail abiarazten duzun lehen aldian, kontu batera sartzeko edo kontu bat sortzeko eskatuko dizu, gailua lehen aldiz konfiguratu zenuenean egin ez bazenuen. Gmail sarrerako ontzian irekitzen da. Hemendik hau egin dezakezu:

- ▶ **Mezu elektronikoak irakurtzeko:** ukitu mezu bat, irakurtzeko. Irakurri gabeko mezuak letra lodiz agertzen dira.

Mezu bat irakurtzen ari zaren bitartean:

- Ukitu ikonoak eta menua pantailaren beheko aldean, mezu hori jasotzeko, ez onartzeko, etiketatzeko edo beste ekintzaren bat egiteko.
- Lerratu pantailan ezkerrean edo eskuinera, aurreko edo hurrengo elkarrizketa irakurtzeko.

- ▶ **Mezu elektronikoak antolatzeke:** Markatu mezuaren ondoko laukia, hura hautatzeko. Ondoren, pantailaren beheko aldeko ikonoak eta menua erabili, hautatutako mezuak administratzeko.
- ▶ **Konfigurazioa aldatzeko:** Ukitu menuaren ikonoa  zure lehentasunak aldatzeko, kontu bat gehitzeko edo laguntza eskuratzeko.

Gmailen edozein tokitan zaudela ere, beti itzul zaitezke sarrerako ontzira pantailaren goiko ezkerreko aldean  ukituta.

Honekin lotutako gaia:


[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)




Pertsonak bilatzea

Norbaitekin komunikatu nahi duzunean, Kontaktuak aplikazioak aukera ematen dizu hura bizkor eta erraz aurkitzeko. Zure telefonoa lehen aldiz aktibatu eta Googleren kontu batera sartzen zarenean, kontu horretan dauden kontaktuak Kontaktuak aplikazioarekin sinkronizatzen dira. Hortik aurrera, zure kontaktu guztiak automatikoki egongo dira sinkronizatuta, aldaketak zure telefonoan, beste gailu batean edo web-nabigatzailean egin arren.

Google+-en bazaude edo Exchange erabiltzen baduzu, informazio hori ere sinkronizatu dezakezu Kontaktuak aplikazioarekin.



Kontaktuak aplikazioko informazio guztia Gmail-en, Google Talk-en, Messenger-en, telefonoan eta behar duten beste aplikazio batzuetan egongo da. Iturri desberdinetatik kontaktuak gehitu ahala, behar diren toki guztietan sinkronizatzen dira automatikoki.


- ▶ Zure kontaktuak ikusteko: pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu Personas aplikazioaren ikonoa .

Kontaktuak abiarazten duzun lehenengo aldian, kontu batera sartzeko edo kontu bat sortzeko eskatuko dizu. Ondoren, aplikazioa irekiko da, kontaktuen zerrenda nagusiarekin. Hiru modutara ikus ditzakezu, Bistaratzearen goiko aldeko fitxak ukituta: Taldeak , Guztiak  eta Gogokoak .

- ▶ Lerratu hatza ezkerrean edo eskuinera fitxetan mugitzeko eta gora edo behera zerrendetan mugitzeko.

Edozein ikuspegi nagusitatik, hau egin dezakezu:

- ▶ **Libre nor dagoen ikusteko:** Une horretan Google Talken edo beste sare batean dauden kontaktuei Disponible jartzen die, eta puntu berde batez markatuta agertzen dira ●.
- ▶ **Xehetasunak irakurtzeko:** ukitu izena kontaktu edo talde baten xehetasunak ikusteko.
- ▶ **Azken jarduerak ikusteko:** Kontaktua bat bistaratzen duzunean, lerratu hatza eskuinera edo ukitu konexio-profil bat (adibidez, Google+), azken eguneraketak ikusteko.
- ▶ **Xehetasunak editatzeko:** Kontaktua bat bistaratzen duzunean, ukitu menuaren ikonoa , eta hautatu kontaktuaren xehetasunak editatzeko edo partekatzeko aukerak, dei-tonu bat jartzeko aukera, eta abar. Menuaren ikonoaren ondoko izarra ere ukitu dezakezu, zure Gogokoen zerrendan kontaktu bat gehitzeko.
- ▶ **Konfigurazioa aldatzeko:** Zerrenda nagusiaren pantaila bistaratzen duzunean, ukitu menuaren ikonoa  kontaktuak inportatzeko edo esportatzeko, Grupos eta Todos fitxak bistartzeko aukerak hautatzeko, eta kontuak gehitzeko edo editatzeko.

Personas-en edozein tokitan zaudela ere, beti itzul zaitezke zerrenda nagusira, pantailaren goiko ezkerreko aldean  ikonoa ukituta.

Honekin lotutako gaiak:

[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)

Zure egutegia administratzea


Egutegia aplikazioak agenda ikusteko eta editatzeko aukera ematen du.

Telefonoa lehen aldiz konfiguratu zenuenean, lehendik zenuen Googleren kontu batekin erabiltzeko konfiguratu zenuen (Gmail) edo berri bat sortu zenuen. Telefonoan lehen aldiz Egutegia aplikazioa irekitzen duzunean, webeko Googleren kontuan dauden egutegiko gertaerak bistaratu dira. Gailu mugikorretatik edo web-nabigatzailetik gertaerak editatu ahala, automatikoki sinkronizatuko dira, behar diren toki guztietan.

Zure egutegia ikusteko, ukitu  pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan.

Egutegiaren ikuspegia aldatzeko, ukitu data goiko aldean, eta hautatu **eguna, astea, hilabetea** edo **agenda**. Lerratu bertikalean edo horizontalean mugitzeko. Egunen edo asteen ikuspegian, jarri hatzak eta bereizi edo elkartu irudia urruntzeko edo gerturatzeko.

Edozein ikuspegitatik, hau egin dezakezu:



- ▶ **Gertaeraren xehetasunak ikusi edo editatzeko:** ukitu gertaera bat xehetasunak ikusteko.
- ▶ **Gertaerak eta egutegiak.** Ukitu goiko aldeko ikonoak edo menuaren ikonoa  gertaerak bilatzeko edo sortzeko, egunera itzultzeko edo konfigurazio-parametroak ezartzeko.


Honekin lotutako gaiak:

[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)

Zure kamera erabiltzea

Cámara aplikazioa kameraren eta bideo-kameraren konbinazio bat da, eta bi kamera ditu: bat atzera begira (norberari begira) eta bestea aurrera begira (norberaren kontrako aldera). Aurrera begira dagoen kamerak Panorama modua du; harekin, irudi bat sortzen da ikuspegi bati begira mugikorra horizontalki mugituz.

Kamerarekin ateratako argazkiak eta bideoak Galeria aplikazioan ikus ditzakezu . Zure bideo pertsonalak Bideoak aplikazioan  ere badaude, alokatzen edo deskargatzen dituzun filmen ondoan.

Argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko, lehenengo, ukitu kameraren ikonoa , pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan.





Kamera irekitzeko denean, hau egin dezakezu:

- ▶ **Argazki bat ateratzeko:** sakatu botoi urdina.
- ▶ **Ateratako azken argazkiak ikusteko:** Ukitu botoi urdinaren ondoko miniatura.

Orain partekatu ditzakezu Gmail, Google+, Messenger eta argazkiaren ondoan bistartzen diren beste ikono batzuk erabilia.

Argazki hori eta beste batzuk Galeria aplikazioan ikusteko, ukitu argazkia.

Kamera irekita dagoen bitartean, ikono hauek uki ditzakezu konfigurazioa ezartzeko:

Ikonoa	Izena	Deskribapena
	Modua	Kamera, bideo eta panorama moduetan, batetik bestera aldatzeko.
	Kamera aldatzea	Telefonoko aurreko kameratik eta atzekora aldatzeko, eta alderantziz.
	Zooma	Luze sakatu, eta, ondoren, lerratu hatza handitzeko edo txikitzeko.
	Konfigurazioa	Ikono osagarriak bistaritzen ditu esposizioa, flasha, fokua, modu panoramikoa, zuri-balantzea eta konfigurazioko beste parametro batzuk ezartzeko.

Transferentzia-pantailako edukia

Zure pantailatik beste gailu batera web-orri bat, bideo bat edo beste edukiren bat transferi dezakezu bi gailuak hurbilduta (bi gailuen atzealdeak parez pare jarrita).

Hasi aurretik: Ziurtatu bi gailuak desblokeatuta daudela, NFC onartzen dutela (Near Field COmmunication, eremu hurbileko komunikazioa) eta bai NFC eta bai Android BeamTMen aktibatuta dituztela.

Jarraitu urrats hauei:

- 1** Ireki partekatu nahi duzun zerbait duen pantaila bat: adibidez, nabigatzaile baten orri bat, Youtubeko bideo bat edo mapa baten orri bat.
- 2** Jarri zure telefonoaren atzeko aldea beste gailuaren atzeko aldera begira.
- 3** Gailuak konektatzen direnean, soinu bat entzuten da, zure pantailako irudia txikiagotzen da, eta **Ukitu transmititzeko** mezua bistaratzen da.
- 4** Ukitu pantailaren edozein toki.

Zure lagunaren gailuak transferitutako edukia bistaratuko du. Edo, beharrezko aplikazioa instalatuta ez baldin badago, Android MarketTM irekiko zaizu pantailan zure lagunak aplikazioa deskarga dezan.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > NFC

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Android Beam




Deskargak administratzea

Gailuaren barne-biltegiari gordetzen dira Gmail-etik, posta elektronikotik, Android Marketetik edo beste moduren batera deskargatutako fitxategiak, aplikazioak eta beste elementu batzuk. Deskargak aplikazioa erabil dezakezu deskargatutakoa ikusteko, berriro irekitzeko edo ezabatzeko.

Mugikor-sare batzuek deskarga daitezkeen fitxategien tamainak mugatzen dituzte, haien sareen beharrak administratzeko edo ustekabeko deskargak galarazteko. Horietako sare batera konektatuta zaudela handiegia den fitxategi bat deskargatzen saiatzen bazara, baliteke deskarga atzeratzeko eskatzea, gailua WiFi sare batera konektatuta egon arte. Une horretan, automatikoki hasiko da deskargatzen. Zain dauden fitxategi horiek ikusi eta administratu ditzakezu Deskargak aplikazioan.

Deskargatutako fitxategiak Deskargak karpetan jasotzen dira; karpeta hori gailua ordenagailu batera konektatuta dagoenean bistara daiteke. Karpeta horretatik ikusi eta kopia ditzakezu fitxategiak.


Ireki Deskargak eta administratu deskargatutako fitxategiak

- Ukitu Deskargak  ikonoa pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan.
- Ukitu elementu bat, hura irekitzeko
- Ukitu aurreko deskargen goiburua, haiek ikusteko.
- Markatu partekatu nahi dituzun elementuak. Ondoren, ukitu Partekatu  ikonoa eta hautatu partekatzeko modua zerrendan.
- Markatu ezabatu nahi dituzun elementuak. Ondoren, ukitu Ezabatu  ikonoa.
- Pantailaren beheko aldean, ukitu **Tamainaren arabera** edo **Aldatze-dataren arabera** batetik bestera aldatzeko.

Errendimendua doitzea

Bateriaren iraupena optimizatzea

Kargatze batetik bestera, bateriaren iraupena luzatu egin dezakezu, behar ez dituzun funtzioak desaktibatuz. Aplikazioen eta sistemaren baliabideek bateriaren energia kontsumitzeko modua ere kontrola dezakezu.

Hemen deskribatzen den konfigurazioa aldatzeko, ukitu konfigurazioaren ikonoa , pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan.

Bateriaren iraupena luzatzea

- WiFi-a, bluetootha edo GPSa erabiltzen ez badituzu, erabili Ezarpenak aplikazioa horiek desaktibatuzeko. GPSaren konfigurazioa hemen dago: **Ezarpenak > Pertsonalak > Kokapena**.
- Ez utzi irekita Maps edo Google aplikazioak pantailan, erabiltzen ez dituzunean. Aplikazio horiek GPSa (eta energia gehiago) erabiltzen dute aktibo daudenean.
- Desaktibatu pantailaren distira, eta ezar ezazu pantailaren itxarote-denbora laburragoa. **Ezarpenak > Gailua > Bistaratzea**.
- Ez baldin baduzu behar, desaktibatu aplikazio guztien sinkronizazio automatikoa. **Ezarpenak > Pertsonalak > Kontuak > Sinkronizatu datuak automatikoki**. Gogoan izan horrek esan nahi duela eskuz sinkronizatu behar duzula → mezuak, mezu elektronikoak eta informazioa jasotzeko, eta ez duzula jakinarazpenik jasoko eguneraketak egiten direnean.
- Mugikor-sare edo WiFi sare batetik urrun egongo bazara denbora jakin batean, aldatu hegazkin modura: Luze sakatu **pizteko botoia**, telefonoko aukera dituen elkarrizketa-koadroa agertu arte. Ondoren, ukitu Hegaldi modua.

Bateriaren maila eta erabileraren xehetasunak kontrolatzea

► Ireki **Ezarpenak > Gailua > Bateria**.

Pantailaren beheko aldeko zerrendan, aplikazioen eta gainerako zerbitzuen artean bateria-kontsumoa nola banatzen den azaltzen da. Sakatu grafikoa, xehetasun gehiago eskuratzeko. Aplikazio batzuen xehetasunen pantailan badaude energiaren kontsumoari eragiten dioten konfigurazio-parametroak ezartzeko edo aplikazioa erabat geldiarazteko botoiak.

Abisua!

Aplikazio edo zerbitzu batzuk geldiarazten badituzu, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea.

ren goiko aldean ikus daitezke bateriaren egoera (kargatzen edo deskargatzen) eta maila (kargaren ehunekoak).

Deskarga-grafikoak erakusten du gailua azkenekoz kargatu zenuenetik orain arterainoko bateria-maila eta bateriak zenbat denboran funtzionatu duen.

Datuen erabilera optimizatzea

Datuen erabilerak adierazten du denbora jakin batean gailuak igotako eta deskargatutako datu-kantitatea. Gailuaren arabera eta zure haririk gabeko konexio-planaren arabera, baliteke zerbait kobratzea zure datu-erabilerak planaren muga gainditzen duenean.

Datu-erabilera kontrolatzeko, ezarri datu-erabileraren konfigurazioa. Lehenengo, berrikusi zure plana eta ezarri aplikatu beharreko datu-muga.


Abisua!

Zure telefonoak neurtzen du datu-erabileraren konfigurazio-pantailan agertzen den erabilera. Baliteke hornitzaileak adierazitako datu-erabilera eta mugikorrena desberdinak izatea. Zure hornitzailearen datu-planaren muga gaindituz gero, baliteke asko ordaindu behar izatea. Hemen deskribatzen den konfigurazio-funtzioak erabileraren segimendua egiten lagun diezazuke, baina ez du bermatzen gero beste kargurik ordaindu behar ez izatea.


Datu-erabileraren konfigurazioak aukera hauek ematen ditu:

- Datu-erabileraren maila ezartzea, ohartarazpen bat jaso dezazun.
- Datu-erabilerarako muga bat zehaztea.
- Aplikazio baten datu-erabilera ikustea edo mugatzea.

Hemen deskribatzen den konfigurazioa ezartzeko:

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazioaren ikonoa .
- 2 Ukitu **Hari gabekoak eta sareak > Datu-erabilera**

Lehenespenez, datu mugikorren konfigurazioa ikus dezakezu, hau da, zure hornitzaileak emandako datu-sarea edo -sareak:

WiFi datu-sarearen konfigurazioa bistaraz daiteke aparteko fitxa batean. Hori egiteko, ukitu menuaren ikonoa , eta, ondoren, **Era-kutsi Wi-Fi sareen erabilera**.

Pantailaren goiko aldean, datu mugikorrak aktibatzen/desaktibatzen etengailua dago. Ondorengo jarraibideetan, etengailua aktibatua dagoela jotzen da. Desaktibatuta baldin badago, ezingo dituzu datu mugikorrak eta zure telefonoko funtzio eta aplikazio batzuk ez dira ondo ibiliko.

Aktibatzen/desaktibatzen etengailuaren azpian datu-erabilera zikloa dago. Uki ezazu beste ziklo bat hautatzeko. Datu-tarte horretarako bistaritzen da datu-erabilera grafikoa.

Grafikoko linea bertikal zuriek datu-erabilera zikloko aldi bat adierazten dute. Aldi horren araberakoa da grafikoaren azpian bistaritzen den erabilera-kantitatea.

Arrastatu lerroak denbora-tartea aldatzeko.



Erabilera-ohartarazpena ezartzea

- ▶ Arrastatu linea laranja eskuineko aldetik, ohartarazpena jaso nahi duzun mailaraino. Datu-erabilera maila horretara iristen denean, ohartarazpen bat jasoko duzu.

Datu-erabileraren muga jartzea

1 Markatu **Ezarri datu mugikorren muga.**

Ezarritako muga deskribatzen duen elkarrizketa-koadro bat bistaratzen da.

2 Irakurri mezua. Aurrera segitu nahi baduzu, sakatu **ADOS**

Grafikoaren goiko aldean lerro gorria aktibatzen da; gora edo behera arrastatu dezakezu.

3 Arrastatu lerro gorria eskuineko aldetik muga ezarri nahi duzun tokiraino.

Datu-erabilera mugara iristen denean, datu mugikorrek desaktibatu egingo dira automatikoki, eta telefonoko funtzio ugari ez dira ondo ibiliko. Hori gertatzen denean, ohartarazpen bat jasoko duzu.

Garrantzitsua


Zure telefonoak neurtzen du datu-erabileraren konfigurazio-pantailan agertzen den datu-erabilera. Baliteke hornitzaileak adierazitako datu-erabilera eta mugikorrarena desberdinak izatea. Zure hornitzailearen datu-planaren muga gaindituz gero, baliteke asko ordaindu behar izatea. Hemen deskribatzen den konfigurazio-funtzioak erabileraren segimendua egiten lagun diezazuke, baina ez du bermatzen gero beste kargurik ordaindu behar ez izatea. Eraitza hobeak lortzeko, ezarri neurriko muga bat.

Aplikazio baten datu-erabilera ikustea edo mugatzea

Aplikazio batzuek datuak transferitzen dituzte atzeko planoan; hau da, aplikazioa erabiltzen ari ez zarenean, hark datuak deskarga ditzake geroago erabiltzeko. Datuen atzeko planoko erabilera mugatzea erabilgarria izan daiteke datu-erabilera orokorra murrizteko. Hala ere, neurri horrek aplikazioaren errendimenduari ere eragin diezaioke eta gaizki ibiltzea ekar dezake. Datu-erabilera mugatu aurretik, begiratu ea aplikazioaren konfigurazioan bertan muga daitekeen (aplikazioan bertan).

- 1** Ziurtatu ikusten ari zaren sarea datu-erabilera ikusi edo mugatu nahi diozun aplikazioari dagokiola. Bat baino gehiago agertzen badira, batetik bestera alda dezakezu pantailaren goiko aldean fitxak ukituta.
- 2** Mugitu behera datu-erabilera ikusi nahi diozun aplikazioa bilatzeko.
Aplikazio bakoitzaren barra urdinak adierazten du zein izan den guztizko datu-erabilera grafiko nagusiaren gainean, pantailaren goiko aldean, agertzen den zikloan.
- 3** Aplikazio baten xehetasun gehiago ikusteko, ukitu haren izena.
Grafiko nagusia aldatu egiten da aplikazio horrek ziklo espezifiko batean egindako datu-erabilera bistartzeko. Grafiko nagusiaren azpian, grafiko zirkular batean adierazten dira aplikazio horren lehen planoko eta erreferentziazko datu-erabilera.
- 4** Aplikazio horren erreferentziazko datu-erabilera geldiarazteko, markatu **Mugatu atzeko planoko datuak**
- 5** Irakurri bistaritzen den mezua. Aurrera segitu nahi baduzu, sakatu **ADOS**

Datu-erabileraren konfigurazio aurreratua

Menuaren ikonotik  aukeran dauden beste bi konfiguraziok oso ondorio txarrak izan ditzakete, baina baliagarriak dira batzuetan:

- **Datuen roamingak gehiegizko karguak ekar ditzake.** Hala ere, toki batzuetan, baliteke beste aukerarik ez izatea Internetera konektatzeko.
- **Datuak murrizteak** erabilgarri dauden sare guztietako aplikazio guztiei eragiten die, eta baliteke funtzio batzuek ez funtzionatzea. Pauso hori tentuz erabili behar da.

Memoriaren erabilera optimizatzea

Normalean, ez duzu aplikazioen administrazioaz arduratu behar. Instalatu, ireki eta erabili berrik ez duzu egin behar. Baina litekeena da une batzuetan eszenatokiaren atzean gertatzen denari buruzko informazio gehiago eduki nahi izatea.

Aplikazioek bi memoria-mota erabiltzen dituzte: barne-biltegia eta RAM memoria. Aplikazioek barne-biltegia erabiltzen dute beraientzat eta erabiltzen duten edozein fitxategi, konfigurazio edo datuentzat. Funtzionatzen ari direnengan RAM memoria ere erabiltzen dute (aldi baterako eta bizkor atzitzeko diseinatutako biltegia).

Androidek arretaz kudeatzen eta babesten du sistema, aplikazioak eta aplikazioetarako datu gehienak gordetzen diren barne-biltegiko zatia; izan ere, informazio pertsonala egon daiteke han. Gailua ordenagailu batera USB kable batekin konektatuz gero, ezin da ikusi barne-biltegiaren zati hori. Barne-biltegiaren beste zatia (musika, deskargatutako fitxategiak eta abar daudena) eroso ikus dezakezu.

RAM memoria aplikazioek nola erabiliko duten ere kudea dezakezu Androidekin. Cachen gorde dezakezu azkena erabilitako hori berriro behar izanez gero bizkorrago sar zaitezten, baina cachea ezabatuko du jarduera berrietarako RAM memoria behar baldin badu.

Aplikazioek barne-biltegia nola erabili erabaki dezakezu zuk, zuzenean edo zeharka. Este baterako:


- Aplikazioak instalatzeko edo desinstalatzeko garaian
- Nabigatzailean, Gmailen eta beste aplikazio batzuetan fitxategiak deskargatzean.

- Fitxategiak sortzean (adibidez, argazkiak ateratzean).
- Deskargatutako edo sortutako fitxategiak ezabatzean.
- Fitxategiak gailuaren eta ordenagailuaren artean trukatzeko, USB konexio baten bidez edo bluetooth bidez.

Normalean, ez duzu kudeatu beharko aplikazioek RAM memoria erabiltzeko modua. Baina aplikazioek egiten duten RAM memoriaren erabilera kontrola dezakezu, eta geldiarazi ondo ez baldin badabilta.

Aplikazio-pantaila erabiltzea

Aplikazio-pantailak aukera ematen dizu gailuak memoria erabiltzeko moduari buruzko alderdiak ezartzeko aukera ematen dizu. Konfigurazio-parametro horiek ikusteko:


- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Gailua aukeran, sakatu **Aplikazioak**.

Pantailaren goiko aldean hiru fitxa ikusiko dituzu; bakoitzak aplikazio-zerrenda bat edo haren osagaiak bistartzen ditu:

- **Deskargatuta.** Dendatik edo beste iturri batzuetatik deskargatutako aplikazioak bistartzen ditu.
- **Abian.** Martxan dauden –edo cache memorian prozesuren bat duten aplikazioak, prozesuak eta zerbitzuak bistartzen ditu, eta zenbat RAM erabiltzen ari diren.

Abian fitxaren azpiko grafikoak bistartzen du guztira erabiltzen ari den RAM memoria eta zenbat dagoen libre. Grafikoaren azpian, ukitu **Cache gordetako datuak** edo **Beste datu batzuk batetik bestera** aldatzeko.

- **Guztiak.** Androidekin datozen eta Android Marketetik edo beste iturri batzuetatik deskargatutako aplikazio guztiak bistaratzen dira aukera honetan.



Deskargatuta edo **Guztiak** fitxetan bistaratzen diren zerrenden ordena aldatzeko, ukitu menuaren ikonoa  > **Ordenatu izenaren arabera** edo **Ordenatu tamainaren arabera**.

Edozein fitxatako aplikazio bati edo beste elementu bati buruzko xehetasunak ikusteko, ukitu haren izena. Eskura dauden informazioa eta kontrolak aldatu egiten dira aplikazio-motaren arabera, baina guztiek dituzte hauek:


- **Behartu gelditzera botoia:** ondo ez dabilen aplikazioak geldiarazteko balio du. Aplikazio, prozesu edo zerbitzu bat geldiarazteak eragin dezake zure gailuak ondo ez funtzionatzea. Litekeena da horren ondoren gailua berrabiarazi behar izatea.
- **Desinstalatu botoia:** aplikazioa eta haren datu guztiak eta konfigurazio-parametroak ezabatzen ditu.
- **Desgaitu botoia:** aplikazioa exekutatzea galarazten du, baina ez du desinstalatzen. Aukera hau erabilgarri dago desinstalatu ez daitezkeen aplikazio eta zerbitzu batzuetan.
- **Garbitu datuak botoia:** aplikazio baten konfigurazio-parametroak eta beste aplikazio batzuk ezabatzen ditu, aplikazioa ezabatu gabe.
- **Garbitu cachea botoia:** baldin eta aplikazioak aldi baterako datuak jasotzen baditu tableta-aren memorian, zenbat informazio jaso den adierazten du, eta hura ezabatzeko botoia du.
- **Ireki modu lehenetsian:** fitxategi-mota batzuk lehenespenez exekutatzeko aplikazio bat konfiguratu baldin bazenuen, hemen ezabatu dezakezu konfigurazio hori.
- **Baimenak:** tabletako informazio-klaseen zerrenda dago eta adierazten da aplikazioak zer datutara duen sarbidea.

Telefonoa aplikazioa erabiltzen ikastea



Biltegitutako zenbakiak markatzea


Deitu  eta Kontaktuak  aplikazioetatik eta kontaktuei buruzko informazioa duen beste edozein aplikazio edo widget-etik egin ditzakezu deiak. Telefono-zenbaki bat bistaratzeko, normalean, hura uki dezakezu zenbakia markatzeko.

Deitu aplikazioarekin markatzeko:

- Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu telefonoaren ikonoa .

Telefonoaren goialdean hiru fitxa daude. Horietako edozeinetatik egin daitezke deiak.



- Teklatua  fitxan eskuz markatu dezakezu zenbakia. Zenbakiak idazteko teklak ukitu; ondoren, ukitu telefonoaren ikonoa eta  teklatuaren azpian, zenbakia markatzeko.

Okerreko zenbakia idazten baduzu, ukitu  digituak banaka ezabatzeko.

Kontaktu guztiek zenbakiak ikusteko, ukitu . Hemen ere bilatu ditzakezu zure kontaktuak.

Nazioarteko zenbaki bat markatzeko, luze sakatu 0 tekla, (+) ikurra idazteko. Ondoren, idatzi herrialdearen nazioarteko aurrezenbakia eta telefono-zenbaki osoa.



- Azkenak  fitxan, egindako azken deiak bistaratzen dira. Ukitu dei bat hari erantzuteko.
- Gogokoenak  fitxan sarrien erabiltzen dituzun zenbakiak bistaratzen dira. Ukitu markatzeko.

Deian, aplikazioz alda dezakezu (adibidez, informazioa bilatu dezakezu nabigatzailean). Egoera-barran, telefonoaren ikonoa berdez agertuko da deian.

Deian Teléfono aplikaziora itzultzeko:

- 1** Pantailaren goiko aldetik behera lerratu, jakinarazpenak bistartzeko
- 2** Ukitu telefono berdearen ikonoa.

Uneko deia amaitzeko, ukitu deia amaitzeko ikonoa  Pantailaren beheko aldean.

Honekin lotutako gaiak:

[Dei batean dituzun aukerak](#)

Deiei erantzutea eta deiak desbideratzea

Telefono-dei bat jasotzen duzunean, sarrerako deien pantaila irekitzen da eta dei-egilearen IDa eta Kontaktuak atalean dei-egileari buruz duzun informazio osagarria bistaratzen dira.

Jasotako dei guztiak Teléfono aplikazioaren Registro de Llamadas fitxan erregistratzen dira. Deia galtzen baduzu, jakinarazpen bat jasoko duzu.

Deiari erantzun aurretik txirrina isilarazteko, sakatu bolumena jaisteko botoia, telefonoaren alde batean.

Dei bat jasotzen duzunean, ukitu telefono zuriaren ikonoa eta lerratu hatza ikono hauetako baten gainean:



Deiei
erantzutea

Dei-egilearekin hitz egiten hastea.



Ahots-postontzira
bidaltzea


Dei-egileari esatea ahots-postontzian mezua utz dezan



Mezu bat
bidaltzea

Lehenetsitako testu-mezuen zerrenda irekitzea. Dei-egilerari berhala bidaltzeko bat ukitzea.

Iradokizuna

Telefonoa aplikaziotik testu-erantzunak editatzeko, ukitu menuaren ikonoa  > **Ezarpenak** > **Erantzun bizkorrak**


Honekin lotutako gaia:

[Tonua eta beste soinu batzuk ezartzea](#)




Dei-erregistroarekin lan egitea

Egindako, jasotako edo galdutako dei guztien zerrenda da dei-erregistroa. Zenbakia berriro markatzeko, deira itzultzeko edo zenbakia Contactos atalean eransteko aukera ematen du.




Teléfono  aplikazioan, deien erregistroa erdiko fitxaren azpian dago .


Ukitu zenbaki bat deiarri buruzko informazioa jasotzeko edo ukitu zenbakiaren ondoan dagoen telefonoaren ikonoa , zenbaki horretara deitzeko.

Deiaren ondoan dauden geziek dei-mota adierazten dute. Gezi desberdinek dei-mota desberdinak adierazten dituzte:

-  Galdutako sarrerako deia
-  Jasotako sarrerako deia
-  Irteerako deia

Dei baten xehetasunak ikusten dituzunean:

- Ukitu zenbakia deia egiteko.
- Ukitu  testu-mezua bidaltzeko.
- Ukitu  kontaktuaren xehetasunak ikusteko.
- Ukitu  Kontaktuak atalean dei-egilearen txartel berri bat gehitzeko. Deien erregistroa ezabatzeko:

- 1 Ukitu menuaren ikonoa 
- 2 Ukitu **Garbitu deien historia**

Internet bidezko deiak egitea (SIP)

Internet bidez deiak egin ditzakezu WiFi sare batera konektatuta zaudenean, zure mugikor-sarea erabili beharrean. Horretarako, lehenengo Internet bidez deitzeko kontu bat erabiltzeko konfiguratu behar duzu telefonoa.



Kontua konfiguratu ondoren, Internetez deitzea beste edozein dei egitea bezala da. Hala ere, WiFi sare batera konektatuta egon behar da. Dei bat Internet bidez egiten duzunean, telefonoak Interneten bidezko deia jartzen du, pantailaren goiko aldean.

Internet bidezko deiak ahots-deiak, Interneteko Protokolo (IP) bidezkoak, saio-hasierako protokoloan (SIP) daude oinarrituta.

Iradokizuna




Telefono-zenbaki batera Internet bidez deitzeko, zure zerbitzu-hornitzaileak onartu egin behar du hori. Kostu gehigarriak erabiltzeko. Kontsultatu zure zerbitzu-hornitzailearekin xehetasun gehiago lortzeko.

Internet bidezko dei-kontu bat eransteko eta sarrerako eta irteerako deien lehenetasuna konfiguratzeko:


- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu telefonoaren ikonoa .
- 2 Ukitu menuaren ikonoa .
- 3 Ukitu **Ezarpenak**
- 4 Pantailaren beheko aldean, Internet bidezko deien konfigurazioaren azpian:
Sarrerako deien zure lehentasunak aldatzeko edo kontuaren konfigurazioa aldatzeko, ukitu **Kontuak**
Irteerako deien lehentasunak aldatzeko, ukitu **Interneten bidezko deia erabili**

Modu honetara deitu nahi dituzun kontaktueterako SIP helbideak gehitu ditzakezu.

Horretarako:

- 1 Ukitu kontaktuaren informazioa Deien erregistroa  fitxan.
- 2 Ukitu  kontaktuaren txartelera joateko.
- 3 Ukitu menuaren ikonoa , eta, ondoren, **Editatu**
- 4 Mugitu Bistaratzearen beheko aldean, ukitu **Eremu gehiago** eta, ondoren, **Interneten bidezko deia**
- 5 Ukitu **Interneten bidezko deia** eremua, eta idatzi zenbakia.

Ahots-postontzia entzutea

Ahots-postontzian mezu berri bat duzunean, ahots-postontziaren ikonoa  bistaratzen da egoera-eremuan, Pantailaren goiko ezkerreko aldean.

Zure ahots-postontzia irakurtzeko:


1 Pantailaren goiko aldetik behera lerratu, jakinarazpenak bistartzeko. Ahots-postontziaren jakinarazpenak irakurri gabeko mezu-kopurua eta markatu beharreko zenbakia erakusten ditu.

2 Ukitu **Ahots-postontzia**

Telefonoak ahots-postontziko mezua markatuko du. Segi jarraibideei mezuak berreskuratzeke.

Zure ahots-postontziko zerbitzua edo konfigurazioko beste parametro batzuk aldatzeko:

1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu telefonoaren ikonoa .

2 Ukitu Menua  eta, ondoren, **Ezarpenak**.

3 Ukitu ahots-postontziaren konfigurazioko zer parametro aldatu nahi duzun.

Dei bat martxan dela egin daitezkeenak



Hitz egiten ari zarenean, aukera hauek dituzu:

- Sarrerako beste dei bati erantzutea: Sarrerako deia pantaila ikusiko duzu; dei-egilearen IDa eta Kontaktuak atalean dei-egileari buruz duzun informazio osagarria bistaratzen dira. Beste edozein dei-egilerekin bezala, ukitu telefono zuria eta lerratu erantzuteko, testu-mezu batekin erantzuteko edo deia ahots-postontzira bidaltzeko.

Erantzuten baldin baduzu, lehen deia zain geratuko da. Mezu batekin erantzuten baduzu edo deia ahots-postontzira bidaltzen baduzu, lehenengo deira itzuliko zara.

- Bolumena doitzea: Erabili telefonoaren alboan dauden bolumen-botoiak.






Dei batean, pantailaren beheko aldean dauden botoiak ere erabil ditzakezu, honetarako:

-  Markagailura aldatzea, adibidez, kode bat idazteko.
-  Audio-irteera honela kontrolatzea:

Bluetooth gailurik konektatuta ez badago: bozgorailua aktibatzeko/desaktibatzeko

Bluetooth gailuak konektatuta badaude: Hiru aukerako etengailu gisa funtzionatzen du: integratutako entzungailua, bozgorailua eta entzungailua. Ikonoa aldatu egiten da uneko irteera zein den adierazteko. Luze sakatu hiru irteerako menua bistaratzeko.

Telefonora entzungailu bat kable bidez konektatuta baldin badago, telefonora lotutako entzungailua ordezkaten du.

-  Mikrofonoa isilarazten du.
-  Beste aldea zain uzten du.
-  Martxan dagoen beste dei batera pasatzen da.
-  Lehenengotik aparte, beste dei bat egiten du, eta lehenengoa zain uzten du.
-  Aparteko deiak telefono-konferentzia bakar batean elkartzen ditu.

Testua idaztea eta editatzea




Teklatua erabiltzea


Testua idatz dezakezu pantailako teklatuaren bidez. Aplikazio batzuek automatikoki irekitzen dute. Beste batzuetan, norberak ireki dezake idatzi nahi duenean.



Idazten ari zarela, teklatuak iradokizunak egiten dizkizu teklatuaren goiko aldean. Iradokizuna onartzeko, uki ezazu.







Oinarrizko edizioa

- **Txertatze-puntua mugitzeko:** Ukitu non idatzi nahi duzun.
Kurtsoreak dar-dar egiten du posizio berrian, eta fitxa berde bat agertzen da haren azpian. Arrastatu fitxa kurtsorea mugitzeko.
- **Testua hautatu:** Luze sakatu edo ukitu bi aldiz testuaren barruan.
Gertuen dagoen hitza nabarmentzen da, eta hautaketaren bi muturretan mugarri bana dago. Arrastatu fitxak, hautaketa aldatzeko.
Fitxa desagertu egiten da tarte bat pasatu ondoren, trabarik ez egiteko. Berrito agertzeko, ukitu berrito testua.
- **Testua ezabatu:** Ukitu ikono hori hautatutako testua ezabatzeko edo kurtsorearen aurreko karaktereak ezabatzeko.
- **Ebaki, kopiatu edo itsatsi:** Hautatu aldatu nahi duzun testua. Ondoren, ukitu Itsatsi , Ebaki  edo Kopiatu  botoia.



Teklatua desagerraz dadin, ukitu **Ados**.

Iradozikunak eta lasterbideak

- Letra maiuskulak idazteko: Ukitu  tekla behin, letra bat maiuskulaz idazteko. Edo luze sakatu  tekla, idazten ari zaren bitartean. Tekla askatzen duzunean, berriro agertzen dira letra minuskulak.
- Blok maius. aktibatzeke: Ukitu bi aldiz edo luze sakatu  tekla  aukerara aldatzeko. Ukitu berriro  tekla minuskuletara itzultzeko.
- Zenbakiak eta ikurrak bistartzeko: Ukitu ?123 tekla. Aukera gehiago ikusteko, ukitu = \ <.
- Gehien erabiltzen diren ikono eta puntuazio-zeinuetarako lasterbidea: Luze sakatu zuriune-barraren eskuineko tekla (puntuaren tekla).
- Karaktere bereziak idazteko: Teklen izkinako karaktere txiki grisa idazteko, luze sakatu  tekla hori ukitzen ari zaren bitartean.
Luze sakatu tekla bat, harekin idatz daitezkeen letra, ikur eta zenbaki alternatiboak ikusteko, eta, ondoren, haiek ukitu, idazteko.
- Testua idazteko edo teklatuko hizkuntza aldatzeko: Luze sakatu zuriune-barraren -ezkerreko tekla (eskuineko beheko aldean ... duena), eta, ondoren, askatu.
Idazteko aukeren menua bistaratzen da. Hautatu doitu nahi duzun aukera.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak


Ezarpenak > Pertsonalak > Hizkuntza eta idazketa

Ahots bidez testua idaztea

Testua esanda ere idatz dezakezu. Funtzio honek Googleren ahotsa ezagutzeko zerbitzua erabiltzen du; beraz, aukera hau erabiltzeko mugikorretarako datu-konexio bat edo WiFi sarea eduki behar duzu.

Ahots bidez sartzen duzun testua azpimarratuta agertuko da. Testua sartzen segi dezakezu hura mantentzeko, edo ezabatu dezakezu.

Pantailako teklatuarekin testua idatzi dezakezun toki gehienetan idatz dezakezu testua ahots bidez.

- 1** Ukitu testu-eremu bat edo dagoeneko testua baduen kokapen bat.
- 2** Ukitu mikrofonoaren tekla , pantailako teklatuan.
- 3** Mikrofonoaren irudia ikusten duzunean, esan idatzi nahi duzuna.

Esan “koma” (coma), “puntua” (punto), “galdera-marka” (signo de interrogación) edo “harridura-marka” (signo de exclamación edo signo de admiración) puntuazio-markak idazteko.

Gelditzen zarenean, ahotsa ezagutzeko zerbitzuak esandakoa transkribatuko du, eta azpimarratuta sartuko du testu-eremuan. Ezabatu tekla erabil dezakezu azpimarratutako testua ezabatzeko. Ahots bidez testu gehiago idazten hasten bazara, lehengo azpimarra desagertu egingo da.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak


Ezarpenak > Pertsonalak > Hizkuntza eta berrezartzea

Sareetara eta gailuetara konektatzea

Mugikor-sareetara konektatzea

Zure zerbitzu-hornitzailearen era zerbitzu-planaren arabera, baliteke zure telefonoa automatikoki konektatzea zure hornitzailearentzako aukeran dagoen datu-sare bizkorrenera. Edo, agian, SIM txartela sartu beharko duzu edo xehetasunak konfiguratu hornitzaile jakin baterako. Xehetasunak jakiteko, irakurri telefonoarekin datozen jarraibideak.

Zure mugikor-sarearen konfigurazioak aukera ematen dizu telefonoak datu mugikorrek erabiltzeko moduarekin lotutako alderdi batzuk ezartzeko. Konfigurazio-parametro horiek ikusteko:

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazioaren ikonoa .
- 2 Hari gabekoak eta sareak aukeran, sakatu **Gehiago**, eta, ondoren, **Sare mugikorrak**.

Mugikor-sarearen konfigurazioa

Gogoan izan mugikor-sarearen konfigurazioa ezin duzula ezarri hegazkin modua hautatuta dagoenean. Konfigurazio-parametroak desberdinak izan daitezke gailuaren eta planaren arabera.

- **Gaitutako datuak:** Berrikusi aukera hori aukeran dauden mugikor-sare guztietarako datuen sarbidea \rightarrow aktibatzeko.
- Aukera hori desaktibatu aurretik (hori eginez gero baliteke gailuak edo aplikazio batzuek ondo \rightarrow ez funtzionatzea), aztertu ea hobeto datorkizun datuak mugatzeko aukera erabiltzea: **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Datu erabilera**
- **Datu-roaming-a.** Galarazi zure telefonoari datuak beste operadore batzuen mugikor-sareetatik transferitzea zure hornitzaileak estaltzen duen eremutik ateraz gero. Zure datu mugikorren kontratuak datu-roaming-ik ez duenean gastuak kontrolatzeko modu bat da.

Datu-roaming-a desaktibatzen baduzu, datuak transmiti ditzakezu WiFi bidez.

- **Sare modua.** LTE eta CDMA erabiltzea edo CDMA bakarrik erabiltzea hauta dezakezu.
- **Hautatutako sistema.** CDMA sare batean roaming-a aktibatzeko aukera ematen dizu. Orri nagusia hautatuta edukita, zure hornitzailearen sarea erabiltzera mugatuta zaude, bai aho-tsean, bai datuetan.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Datu erabilera

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Hegaldi modua

WiFi sarera konektatzea


WiFia haririk gabeko sare-teknologia bat da, Interneteko sarbidea gehienez ere 100 metrora ematen duena (WiFi bideratzailearen eta inguruaren arabera).

WiFi konexioa erabiltzeko, haririk gabeko sarbide-puntu edo “eremu aktibo” batera konektatu behar duzu. Eremu aktibo batzuk irekiak dira eta horietara konektatu besterik ez da egin behar. Beste batzuek segurtasun-funtzioak ezartzen dituzte, eta beste pauso batzuk konfiguratu behar dira sartzeko, adibidez, ziurtagiri digitalak edo erabiltzaile baimenduak bakarrik konektatzeko moduko segurtasun-neurriak.

Kargatze batetik bestera bateriaren iraupena luzatzeko, desaktibatu WiFi funtzioa erabili behar ez duzunean. Inaktibo dagoenean WiFi sareetatik automatikoki deskonekta ez dadin konfiguratu dezakezu gailua.

WiFi-a aktibatzea eta WiFi sare batera konektatzea

Gailua lehen aldiz konfiguratzeko duzunean WiFi sare bat erantsen baduzu, WiFi-a automatikoki aktibatuko da.

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazioaren ikonoa .
- 2 Ukitu **Hari gabekoak eta sareak > Wi-Fi**
- 3 Lerratu WiFi-aren etengailua **Aktibo** posiziora.

Gailuak erabilgarri dauden WiFi sareak bilatuko ditu eta aurkitzen dituen horien izenak bistaratuko ditu. Sare seguruak blokeatze-ikonoarekin bistaratuko dira. Gailuak aurkitzen badu lehendik konektatu zaren sareren bat, sare horretara konektatuko da.

- 4 Ukitu sarearen izena xehetasun gehiago ikusteko edo sare horretara konektatzeko. Sarea segurua baldin bada, pasahitz bat sartzeko edo bestelako agiriren bat sartzeko eskatuko dizu. (Eskatu xehetasunak zure sare-administratzaileari). Sare baten konfigurazioa aldatzeko, luze sakatu sare horren izena.

WiFi sare bat gehitzea.

WiFi sare bat gehitu dezakezu, segurtasun-identifikazio batekin batera, gailuak gogora dezan eta automatikoki konekta dadin sare horretara eskura dagoenean. WiFi sareak bere izena igortzen ez badu (SSID) ere gehitu beharko duzu sarea, edo WiFi sare baten irismenetik kanpo zaudenean hura gehitzeko.

Sare seguru batera gehitzeko, lehenengo sare-administratzaileak segurtasun-xehetasunak behar dituzu.

- 1 Aktibatu WiFi-a, oraindik aktibatu ez baduzu.
- 2 WiFi-a konfiguratzeko pantailan, ukitu **Gehitu sarea**
- 3 Idatzi sarearen SSID (izena). Behar izanez gero, idatzi segurtasun-xehetasuna edo sareko beste konfigurazio batzuk.
- 4 Ukitu **Gorde**.

Sareari buruzko informazioa gordetzen da. Zure gailua automatikoki konektatutako da sare horretara haren irismenaren barruan baldin bazaude.

WiFi sare bat ezabatzea

Telefonoak zuk gehitutako WiFi sare bateko xehetasunak ezaba ditzake (adibidez, ez baldin baduzu nahi telefonoa automatikoki konektatzea sare horretara edo erabiliko ez duzu sare bat baldin bada).

- 1 Aktibatu WiFi-a, oraindik aktibatu ez baduzu.
- 2 WiFi-a konfiguratzeko pantailan, ukitu sarearen izena.
- 3 Ukitu **Ahaztu** irekitzen den elkarrizketa-koadroan.

WiFi sare baterako proxy parametroak konfiguratzeko:

Sare-administratzaile batzuek barne- edo kanpo-sareetako baliabideetara konektatzeko eskatzen dute proxy zerbitzari baten bidez. Lehenespenez, erantsitako WiFi sareak ez daude konfiguratuta proxy bidez konektatzeko, baina hori aldatu egin dezakezu eransten duzun WiFi sare bakoitzeko.


Nabigatzaileak proxy konfigurazioa erabiltzen du, baina baliteke beste aplikazio batzuek ez erabiltzea.

- 1 Luze sakatu erantsitako WiFi sare-zerrendako sare bat.
- 2 Ukitu **Aldatu sarea** irekitzen den elkarrizketa-koadroan.
- 3 Hautatu **Aukera aurreratuak**
- 4 Sareak ez baldin badu proxy konfiguraziorik, ukitu **Bat ere ez** aukera Ezarpenak de proxy aukeran, eta, ondoren, **Eskuzkoa** irekitzen den menuan.
- 5 Sartu sare-administratzaileak emandako proxy konfigurazioa.
- 6 Ukitu **GORDE**

Proxy konfigurazioa aplikatzen zaio bakar-bakarrik aldatutako WiFi sareari. Beste WiFi sare bazuetakoko proxy konfigurazioa aldatzeko, banaka aldatu behar da.

WiFi jakinarazpenak, deskonektatze-politika eta beste aukera aurreratu batzuk ezartzea

WiFi-aren konfigurazio aurreratuarekin lan egiteko:

- 1 Aktibatu WiFi-a, oraindik aktibatu ez baduzu.
- 2 WiFi-a konfiguratzeko pantailan, ukitu menuaren ikonoa  eta hautatu **Ezarpen aurreratuak**.

Hauek dira ezar daitezkeen konfigurazio-parametroak:

- **Sare erabilgarrien jakinarazpenak:** Lehenespenez, WiFi-a aktibatuta dagoenean, jakinarazpen bat jasoko duzu egoera-barran, gailuak WiFi sare ireki bat detektatzen badu. Kendu aukera honen marka jakinarazpenak desaktibatzeke.
- **Konexio eskasak galaraztea:** Markatu aukera hau kalitate txarra duten edo etenak dituzten Interneteko sare-konexioak automatikoki ez erabiltzeko.
- **Izan Wi-Fia aktibatuta egoera inaktiboan:** Datu mugikorren erabilerari eusteko, zure telefonoa WiFi sarera konektatuta geratzen da pantaila inaktibo dagoenean ere.

Ukitu aukera hau lehenetsitako jokaera aldatzeko: Kargagailu batera konektatuta dagoenean soilik konektatuta egoteko WiFi sarera (alegia, bateriaren iraupena arazo ez denean) edo aktibo ez dagoenean WiFi sarera inoiz ez konektatzeko. Baliteke azken aukerak datu mugikorren erabilera areagotzea. Konfigurazio hori berrikus dezazun aholkatzen dizugu, datu mugikorren muga jakin batera gerturatu zarela adierazten duen jakinarazpena jasotzen baldin baduzu.

- **WiFi frekuentzia-banda:** Aukeratu maitasun-banda: Automatikoa, 5 GHz soilik edo 2.4 GHz soilik.

Pantailan honetan informazio hau ere ikus daiteke:

- MAC helbidea: Zure gailuaren Media Access Control (MAC) helbidea WiFi sare batera konektatzen denean.
- IP helbidea: Konektatuta zauden WiFi sareak gailuari esleitutako Interneteko Protokoloaren (IP) helbidea, baldin eta ez baduzu erabili IP konfigurazioa IP helbide estatiko bat esleitzeko.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Wi-Fi

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Datuen erabilera

Bluetooth gailuetara konektatzea

Irismen laburreko haririk gabeko komunikazio-teknologia da bluetootha, 8 metro inguruko distantzian gailuak komunikatzeko. Bluetooth gailu ohikoenak hauek dira: deiak egiteko edo musika entzuteko entzungailuak, autoetako esku libreko gailuak eta beste gailu eramangarri batzuk (ordenagailu eramangarriak barne).


Hainbat bluetooth profil daude, bluetooth gailuen komunikazio-funtzioak eta -arauak definitzen dituztenak. Zure gailuarekin bateragarriak diren profilen zerrenda eskuratzeko, irakurri jabearen gida.

Bluetooth gailu batera konektatzeko, telefonoko bluetooth-a aktibatu behar duzu. Bluetooth gailu berri bat erabiltzen duzun lehenengo aldian, sinkronizatu egin behar duzu, hartara, bi gailuek jakingo dute haien artean modu seguruan nola konektatu behar duten. Hortik aurrera automatikoki konektatuko dira.

Kargatze batetik bestera bateriaren iraupena luzatzeko, desaktibatu bluetootha erabili behar ez duzunean. Baliteke toki batzuetan bluetootha deskonektatu behar izatea. Bluetootha desaktibatu egiten da hegazkin modura aldatzen zarenean.


Sistema-barraren ikonoak bluetootharen egoera adierazten du.

Bluetootha aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazioaren ikonoa .
- 2 Ukitu **Hari gabekoak eta sareak**
- 3 Lerratu bluetootharen etengailua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Telefonoaren Bluetooth gailuaren izena aldatzea

Zure telefonoak izen generiko bat du lehenetsita bluetooterako; gainerako bluetooth gailuek, konektatzen dituzunean, izen hori ikus dezakete. Izena aldatu dezakezu hobeto ezagutu dadin.

- 1 Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak** aukeran, ziurtatu bluetootha aktibo dagoela.
- 2** Ukitu **Bluetooth**.
- 3** Bluetooth pantailan, ukitu menuaren ikonoa  eta hautatu **Aldatu gailuaren izena**
- 4** Idatzi izen bat, eta ukitu **ALDATU IZENA**.

Telefona beste bluetooth-gailu batekin sinkronizatzea

Zure telefona beste gailuarekin sinkronizatu behar duzu harekin konektatu aurretik. Zure telefona beste gailuarekin sinkronizatu ondoren, sinkronizatuta segituko dute desinkronizatzen ez dituzun bitartean.

- 1 Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak** aukeran, ziurtatu bluetootha aktibo dagoela.
- 2** Ukitu **Bluetooth**. Telefonak eskura dauden bluetooth-gailu guztien IDak bilatu eta bistaratu ko ditu.

Sinkronizatu nahi duzun gailua ez baldin badago zerrendan, ziurtatu detektatua izan dadin aktibo eta konfiguratuta dagoela. Kontsultatu gailuarekin datorren dokumentazioa detektatua izateko moduan jartzen ikasteko.

- 3** Baldin eta zure gailu mugikorrek bilaketa eteten badu bluetooth-gailua prest egon aurretik, ukitu **Bilatzen**.
- 4** Ukitu zerrendan bluetooth-gailuaren IDa sinkronizatzeko.

Segitu jarraibideei sinkronizazioa osatzeko. Sarbide-kode bat sartzeko eskatzen badizu, idatzi 0000 edo 1234 (ohiko kodeak), edo ikus gailuarekin datorren dokumentazioa.

Sinkronizazioa ondo egiten bada, zure telefona gailura konektatuko da.

Bluetooth-gailu batera konektatzea


Bluetooth gailura sinkronizatu ondoren, eskuz konekta zaitezke; adibidez, gailuak aldatzeko edo, irismen-eremuan berriro egonez gero, berriro konektatzeko.

- 1 Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak** aukeran, ziurtatu bluetootha aktibo dagoela.
- 2** Gailuen zerrendan, ukitu sinkronizatutako baina deskonektatutako gailua.

Telefonoa eta gailua konektatuta daudenean, gailua konektatuta agertuko da zerrendan.

Bluetooth gailu bat konfiguratzea edo desinkronizatzea

Bluetooth gailu batzuek zenbait profil dituzte. Profilek zure elkarrizketak transmititu ditzakete, musika estereoan erreproduzitu dezakete edo fitxategiak edo datuak transferi ditzakete. Telefonoan erabili nahi dituzun profilak hauta ditzakezu. Zure telefonoaren bluetooth-gailuaren izena ere alda dezakezu.

- 1 Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak** aukeran, ziurtatu bluetootha aktibo dagoela.
- 2** Bluetootharen konfigurazioan, ukitu konfiguratuta nahi duzun bluetooth-gailu konektatuaren ondoan dagoen konfigurazio bizkorreko ikonoa .

Gailuaren izena aldatzeko, desinkronizatzeke edo profilak hautatzeko aukera ematen duen pantaila irekitzen da. Amaitutakoan, ukitu Atzera botoia.

Sare-konexio bat edukitzea, bluetooth-sarearen bidez

Bluetooth-aren bidez bere sare-konexioa parteka dezakeen ordenagailu bat edo beste gailu bat baduzu, telefonoa konfiguratu dezakezu bluetooth-sare batekiko loturaren bidez sareko konexioa izateko (alderantzizko konexio esaten zaio batzuetan).

- 1** Konfiguratu zure gailua haren sarea bluetooth bidez partekatzeko. Kontsultatu zure ordenagailuaren dokumentazioa egiteko moduari buruzko xehetasunak eskuratzeko. Normalean, zure ordenagailua konfiguratu behar duzu bluetooth bidez detektagarria izan dadin eta sarrerako PAN konexioak onar ditzan.
- 2** Sinkronizatu eta konektatu telefonoa zure ordenagailura bluetooth bidez.
- 3** Ikusi **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**
- 4** Markatu **Konexioa partekatzea (Bluetooth)**.

Zure telefonoa Internetera konektatzen da bluetooth-aren eta ordenagailuaren bidez, eta sistema-barran bluetootharen ikonoa bistaratzen da.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Bluetooth

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak.

Teklatura, sagura eta beste gailu batzuetara konektatzea

Teklatu bat eta sagu bat konektatu ditzakezu USB edo bluetooth bidez, baita joystick bat edo beste sarrera-gailuren bat ere, eta PC batean erabiliko zenituzkeen bezala erabili.

Baliteke egokigailu bat behar izatea teklatura edo beste gailuren bat telefonoaren USB atakara konektatzeko. Aldi berean USB gailu bat baino gehiago konektatzeko, erabili USB kontzentra-gailu elektriko bat; hartara, telefonoaren bateriaren energia-kontsumoa murriztuko da.

Bluetooth bidezko sarrera-gailuak beste edozein bluetooth gailu bezala konektatzen dira zure telefonora eta sinkronizatzen dira zure telefonorekin.

Teklatuak

Testua idazteko erabiltzeaz gain, teklatura erabil dezakezu telefonoko funtzioetan mugitzeko:

- Erabili geziaren tekla pantailan elementuak hautatzeko.
- Elementu bat hautatzen duzunean Erakutsi sakatzea elementu hori hautatzea bezala da.
- Irten sakatzea Atzera sakatzea bezala da.
- Sakatu tabuladorea edo Maiusk-tabuladorea inprimaki batean eremu batetik bestera pasatzeko edo testu-eremu askoko pantaila batera pasatzeko.

Sagua

Telefonora sagu bat konektatzen eta mugitzen duzunean, gezi itxurako kurtsore bat agertzen da, ordenagailuan bezala:

- Erabili sagua kurtsorea mugitzeko.
- Saguarekin klik egitea, sakatzea eta arrastatzea hatzarekin ukitzea, luze sakatzea eta arrastatzea bezala da.
- Saguaren botoi bakarra onartzen du.
- Zure saguak segimendu-bola edo desplazamendu-gurpila baldin badu, bertikalean eta horizontalean mugitzeko erabil dezakezu.

Beste sarrera-gailu batzuk

Joystickak bideojokoen aginteak eta beste sarrera-gailu batzuk konektatu ditzakezu telefonora. Horiek kontrolagailurik edo egokigailu berezirik gabe ibiltzen badira zure PCan, baliteke zure telefonoan ere funtzionatzea. Hala ere, jokoek eta beste aplikazioek diseinatuta egon behar dute sarrera-gailu baten funtzio bereziak (adibidez, botoiak edo beste kontrol dedikatu batzuk) onartzeko, ahalik eta gehien baliatzeko.

Ordenagailu batera USBaren bidez Windowsekin konektatzea

USB kable bat erabil dezakezu zure telefonoa Windows duen gailu batera konektatzeko eta musika, argazkia eta beste fitxategi batzuk bi norabideetan transferitzeko. Konexio horrek MTP protokoloa erabiltzen du, Windowsen bertsio berrienekin bateragarria dena.

Sarera ainguratzeko USB modua erabiltzen ari bazara, desaktibatu egin behar duzu USBa telefonoaren eta ordenagailuaren artean datuak transferitzeko erabiltzen hasi aurretik.

Telefonoa ordenagailuko USB ataka batera konektatzen duzunean, unitate gisa sartzen da, eta ordenagailuaren pantailan agertzen da. Une horretatik aurrera fitxategiak kopiatu ditzakezu batetik bestera, beste edozein kanpo-gailurekin egingo zenukeen bezala.

Amaitzen duzunean, USB kablea kentzeko, telefonoa deskonektatu.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak

Ezarpenak > Gailua > Memoria eta USB konexioa

Ordenagailu batera USBaren bidez Macintoshekin konektatzea

USB kable bat erabil dezakezu zure telefonoa SO Mac X duen gailu batera konektatzeko eta musika, argazkia eta beste fitxategi batzuk bi norabideetan transferitzeko.

Konexio horrek MTP protokoloa erabiltzen du, eta, jatorriz, ez da bateragarria SO Mac X-ekin. Beraz, lehenengo Android File Transfer doako aplikazioa instalatu behar duzu zure Macintoshean. Hemen eskura ditzakezu bai aplikazioa, bai instalatzeko jarraibideak:

www.android.com/filetransfer.

Android File Transfer instalatu ondoren, segi jarraibide hauei:

- 1** Android File Transfer aplikazioa lehen aldiz erabiltzen ari bazara, klik egin bi aldiz hura irekitzeko.

Android File Transfer lehen aldiz abiarazi ondoren, automatikoki rekiko da zure gailura edo ordengailura konektatzen zaren bakoitzean.

- 2** Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

Android File Transfer abiarazten da, oraindik exekutatzen ari ez bada, eta leiho bat irekitzen du, zure gailuaren edukia bistaratzeko duena biltegi-espazioaren xehetasunekin batera (leihoaren beheko aldean).

Leiho honek Finderren leiho baten atzera funtzionatzen du: karpetak ireki eta itxi ditzakezu, karpeta berriak sortu ditzakezu eta fitxategiak eraman ditzakezu hara edo handik Finderren beste leiho batzuetatik (eta alderantziz). Amaitzen duzunean, deskonektatu USB kablea.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak

Ezarpenak > Gailua > Memoria eta USB konexioa

Telefonoaren datu-konexioa partekatzea

Zure telefono mugikorreko datu-konexioa parteka dezakezu ordenagailu batekin, USB edo bluetooth sare-ainguraketa bat erabilia. Gainera datu-konexioa zortzi gailurekin parteka deza-kezu aldi berean, WiFi-eremu eramangarri aktibo bihurtuz gero.

Zure gailuak datu-konexioa partekatzen duen bitartean, pantailaren goiko aldean egoera-ikono bat bistaritzen da, eta dagokion mezua jakinarazpenen zerrendan:



USB bidezko sare-ainguraketara edo eremu aktibora konektatuta.



Bluetooth bidezko sare-ainguraketa aktibo.




WiFi eremu eramangarria aktibatuta.



Sare-ainguraketako edo eremu aktiboetako zenbait konexio daude erabilgarri.

Sare-ainguraketaren eta eremu aktibo eramangarriaren konfigurazioa deskribatzen dira ondoren; datu-konexioak partekatzeko aukera ematen dute. Konfigurazio-parametro horiek ikusteko:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Hari gabekoak eta sareak aukeran, ukitu **Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**

Telefonoaren datu-konexioa USB bidez partekatzea

Baldin eta zure ordenagailuak Windows 7, Mac OS X edo Linuxen doako zerbitzuren baten bertsio berri bat (adibidez, Ubuntu) erabiltzen badu, jarraibide hauei segitu diezaiekezu, aparteko prestaketarik egin beharrik gabe.

Windows 7 baino bertsio zaharrago bat edo beste sistema eragile bat exekutatzen baduzu, baliteke ordenagailua prestatu behar izatea USB kablearen bidez sare-konexioa ezartzeko.

- 1** Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
Pantailaren goiko aldean USB ikono bat bistaratzen da, eta **Conectado como un dispositivo de medios** edo **Conectado como cámara** mezua agertzen da tarte labur batez. Konexio-motak ez dio eragiten sare-ainguraketari.
- 2** Sartu hemen: **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**
- 3 Aktibatu Konexioa partekatzea (USB).**
Orain zure gailuak datu-konexioa partekatzen du zure gailuarekin.
- 4** Zure datu-konexioa partekatzeari uzteko, kendu marka Konexioa partekatzea (USB).aukerari edo deskonektatu USB kablea.

Telefonoaren datu-konexioa bluetooth bidez partekatzea

Zure ordenagailuak Interneteko konexioa eduki dezake bluetooth bidez. Telefonoa konfiguratu dezakezu bere datu-konexioa partekatu dezan ordenagailuarekin.

- 1 Sinkronizatu telefonoa ordenagailuarekin.
- 2 Konfiguratu ordenagailua bluetooth bidezko sare-konexioa eduki dezan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi zure ordenagailuaren dokumentazioa.
- 3 Sartu hemen: **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**
- 4 Hautatu **Konexioa partekatzea (Bluetooth)**.

Orain zure ordenagailuak datu-konexioa partekatzen du zure telefonoarekin.

- 5 Zure datu-konexioa partekatzeari uzteko, kendu marka **Konexioa partekatzea (Bluetooth)** aukerari.

Telefonoaren datu-konexioa WiFi eramangarriko eremu aktibo gisa partekatzea

- 1 Sartu hemen: **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**
- 2 Aktibatu **Wi-Fi sare publiko eramangarria**.

Une bat itxaron ondoren, telefonoa haren WiFi (SSID) sare-izena hedatzen hasiko da, gehienez zortzi ordenagailu edo bestelako gailu batzuekin konektatzeko.

Zure datu-konexioa partekatzeari uzteko, kendu **Wi-Fi sare publiko eramangarria** aukerari.

Zure eremu aktibo eramangarriaren izena aldatzea edo hura babestea

Zure telefonoaren WiFi sarearen izena aldatu dezakezu (SSID) eta, eremu aktibo eramangarri gisa dabilenean, haren WiFi sarea babestu.

- 1** Sartu hemen: **Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak > Gehiago > Konexioa partekatzea eta sare publikoak**
- 2** Ziurtatu **Wi-Fi sare publiko eramangarria** aukera markatuta dagoela.
- 3** Ukitu Konfiguratu **Wi-Fi sare publikoa**.
Konfiguratu Wi-Fi sare publikoa elkarrizketa-koadroa irekiko da.
- 4** Ezarri izena eta segurtasun-aukerak ondoren aipatzen den moduan:
Aldatu gainerako ordenagailuek, WiFi sareak bilatzen dituztenean, ikusiko duten sarearen SSIDa (izena).
Hautatu segurtasun-aukera bat. **WPA2 PSK** segurtasun-aukera hautatzen baduzu, pasahitz-eremua gehituko zaio Konfiguratu Wi-Fi sare elkarrizketa-koadroari. Pasahitza jartzen baduzu, berriro sartu beharko duzu pasahitz hori ordenagailu edo gailu batekin eremu aktibora konektatzen zarenean. Zure WiFi sarearen segurtasuna ezabatzeko, hautatu **Ireki**.
- 5** Ukitu **GORDE**.

Honekin lotutako gaia:


[Jakinarazpenak administratzea](#)

Sare pribatu birtual batera konektatzea (VPN)

Sare birtual pribatuek (VPN) sare horretatik kanpo zaudenean sare lokal seguru batean baliabideetara konektatzeko aukera ematen dute,. Normalean, korporazioek, eskolek eta erakundeek CPNak inplementatzen dituzte haien erabiltzaileak sare lokaleko baliabideetara sar daitezen campusean ez daudenean edo haririk gabeko sare batera konektatzen direnean.

VPN sarbide bat konfiguratzeko, zure sare-administratzailearen xehetasunak eduki beharko dituzu. Zure erakundeak erabiltzen duen soluzioaren arabera, baliteke VPN aplikazio bat esku-ratu behar izatea, bai zure administratzailearen eskutik, bai Android Market-en eskutik.

VPNren konfigurazioaren pantailak aukera emango dizu VPN sareak eransteko eta haren konfigurazio-parametroak ezartzeko. Pantaila hori ikusteko eta hemen deskribatzen diren lanak egiteko:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Hari gabekoak eta sareak aukeran, sakatu **Gehiago > VPN**.

VPN bat eransteko

- 1 VPN Pantailan, ukitu **Gehitu VPN sarea**.
- 2 Bistaratzen den formularioan, osatu zure sare-administratzaileak emango dizun informazioa.
- 3 Ukitu **Gorde**.

VPN pantailaren zerrendara gehitzen da VPNa.

VPN batera konektatzeko

- 1 VPN pantailan, ukitu VPNaren izena.
- 2 Pantailan agertzen den elkarrizketa-koadroan, idatzi eskatzen dituen egiaztagiriak.
- 3 Ukitu **Aktibatu**.

VPN batera konektatuta zaudenean, egoera-ikono bat (etengabe) eta jakinarazpen bat bistarazten dira. Deskonektatzeko, ukitu VPN-konexioaren jakinarazpena.

VPN bat editatzeko

- 1 VPN Pantailan, luze sakatu VPNaren izena.
- 2 Irekitzen den elkarrizketa-koadroan, ukitu **Editatu VPN profila**
- 3 Nahi duzun VPNaren konfigurazioa editatzen da.
- 4 Ukitu **Gorde**.

VPN bat ezabatzeko

- 1** VPN Pantailan, luze sakatu VPNaren izena.
- 2** Luze sakatu ezabatu nahi duzun VPNa.
- 3** Irekitzen den elkarrizketa-koadroan, ukitu **AHAZTU**.

Honekin lotutako gaia:

Jakinarazpenak administratzea

Ziurtagiriekin lan egitea.

Hegazkin-modua eta sareko beste konfigurazio-parametro batzuk kontrolatzea

Konfigurazio-parametro horiek hemen daude: Ezarpenak > Hari gabekoak eta sareak> Gehiago. Jarraibide xeheak ikusteko, segi esteka hauei:

- **Hegaldi modua.** Markatu ezazu, datu-igorgailu guztiak desaktibatzen.
- **VPNa.** Uki ezazu, webguneetara eta sare batetik kanpora zaudenean sare horretako beste baliabideetara konektatzeko konfigurazio-parametroak ezartzeko. Ikusi [Sare pribatu birtual-etara konektatzea \(VPN\)](#).
- **Noekxio partekatzea eta sare publikoak.** Uki ezazu, ordenagailu batekin edo beste gailuren batekin (gehienez, zortzi) partekatzeko zure gailuaren sare-konexioa →USB, WiFi edo bluetooth bidez. Ikusi [Telefonoaren datu-konexioa →partekatzea](#).
- **NFC.** Markatu ezazu eremu hurbileko komunikazioa aktibatzen. Teknologia hau erabiltzen da elkarrengandik zentimetro gutxira dauden gailuen artean konexioa → ezartzeko. NFC aukera aktibatu behar da gailuen artean partekatzeko funtzioak behar bezala funtzionatzen dezan→.
- **Android Beam.** Markatu NFC aktibo dagoenean gailu batetik bestera edukia transferitzeko. Ikusi [Transferentzia-pantailako edukia](#).
- **Mugikor-sareak.** Uki ezazu mugikorraren datu-sareekiko konexioak kontrolatzeko dituzten konfigurazio-parametroak doitzeko→. Ikusi [Mugikor-sareetara →konektatzea](#).

Ahots eta testu bidezko bilaketa

Googleko bilaketak hobeto definitzea


Googleko bilaketak egiteko aukera Pantaila nagusiko goiko aldean dago.

- **Bilatzeko hitzak esatea:** Ukitu mikrofonoaren ikonoa .

Bilatzen ari zaren hitza esan ondoren, nabigatzaileak bilaketaren emaitza-zerrenda bistartzen du.




- **Bilatzeko hitzak idaztea:** Ukitu **Google**.

Idatzi ahala, iradokizunak bistaratuko zaizkizu bilaketa-koadroaren azpian. Lehenengo iradokizunek idazten ari zarena osatzea dute helburu:

- Iradokizun bat berehala bilatzeko, uki ezazu.
- Bilaketa-eremuan iradokizun bat gehitzeko, ukitu haren eskuineko gezia. Ondoren, idazten segitu dezakezu, edo beste iradokizun batzuk hautatu ditzakezu.
- Bilaketa-eremuaren edukia bilatzeko, ukitu teklatuaren beheko eskuineko aldetik gertu dagoen bilaketa-botoia .


Nabigatzaileak bilaketaren emaitzen zerrendan bistaratzen du.

Bilaketa-hitzaren iradokizunen azpian, zure telefonoan aurkitutako elementuak bistaritzen dira:


- Google Maps-en markagailuak  zerrenda komertzial bat adierazten du. Ukitu zerrenda ikusteko, mapan duen kokapena ikusteko, helbidea eskuratzeko, deitzeko edo beste zer-bait egiteko.
- Gogokoen ikonoak  zure markagailuetako bat identifikatzen du. Uki ezazu markatutako orria irekitzeko.
- Aplikazio baten ikonoak adierazten du zure aplikazioetako bat. Uki ezazu aplikazioa irekitzeko.
- Pertsonen ikonoak  zure kontaktuetako bat identifikatzen du. Uki ezazu kontaktu horren txartela irekitzeko.
- Liburu baten azalaren ikonoak zure liburuetako bat identifikatzen du. Uki ezazu irekitzeko.
- Musika-bildumaren ikonoak adierazten du zure telefonoan deskargatutako abesti bat edo musika-fitxategi bat. Uki ezazu abestia erreproduzitzeko.
- Bideoaren ikonoak zure bideoetako bat identifikatzen du. Uki ezazu bideoa erreproduzitzeko.

Bilaketa-elementuak ezartzea

Googleren bilaketak zure telefonoan non egotea nahi duzun ezartzeko:

- 1 Orri nagusian, ukitu **Google**.
- 2 Ukitu menuaren ikonoa  > **Ezarpenak > Telefonoko bilaketa**
- 3 Markatu bilaketa sartu nahi dituzun telefonoko elementuak.

Googleren bilaketaren pribatutasun-konfigurazioa administratzea

- 1 Orri nagusian, ukitu **Google**.
- 2 Ukitu menuaren ikonoa  > **Ezarpenak > Kontuak eta pribatutasuna**
- 3 Ezarri konfigurazio-parametro hauek:

Webaren historia erabiltzea. Markatu ezazu zure ordenagailuan edo beste gailu batzuetan aurretik egindako bilaketen arabera iradokizunak egiteko.

Web-historia kudeatzea. Ireki nabigatzailean Googleren kontuarekin lotutako web-bilatzailearen historiaren konfigurazioa.

Nire kokapena erabiltzea. Markatu ezazu Googleren bilaketen eta beste zerbitzu batzuen emaitzetan zure kokapena kontuan hartzeko.

Trikimailuak eta iradokizunak bilatzea

Nahi duzuna	Idatzi edo esan behar duzuna	Adibideak
Kirol-informazioa	[Taldearen izena]	Real Sociedad
Irudiak	[Gai] honi buruzko argazkiak [Gai] honi buruzko irudiak	Donostiako argazkiak Katuei buruzko irudiak
Neurriak bihurtzea	[Jatorrizko neurria] [helburuko neurria]	30 gradu Celsius Fahrenheitetan.
Filmen ordutegiak	Filma Filma [kokapena] [Filmaren izena]	Filma Filma Donostian The Horse's Mouth
Hitz baten definizioa	Definitu [hitza]	Definitu "kanpandorrea"
Eguraldiaren iragarpena	Eguraldia Eguraldia [kokapena]	Eguraldia Eguraldia Donostia
Identificar un código de área	Código de área [###]	Código de área 215
Posta-kodea identifikatzea	[#####] posta-kodea	20018 posta-kodea

Ordua	Time Time [kokapena]	Time Time Bilbao
Hegaldiei buruzko informazioa	[Aerolinea] [hegaldiaren zenbakia]	American Airlines 390 hegaldia
Itzulpena	Translate [hizkuntza] [esaldia]	Translate euskara: “Where is the Palace Hotel?”
Kalkulagailua	[Esaldi matematiko bat]	75 zati 6
Bazkaria	[Bazkari-mota] [Bazkari-mota] [tokia]	Pizzak Pizzak Donostian

Ahots-ekintzak erabiltzea

Webgunean bilaketak ahots bidez egiteaz gain, ahots-ekintzak erabil ditzakezu kontaktuei deitzeko, toki jakin batera iristeko jarraibideak jasotzeko, mezuak bidaltzeko eta ohiko zeregin ugari egiteko.

- 1** Pantaila nagusiren batean edo nabigatzaileko funtzio anitzetarako koadroaren teklatua irekita dagoenean, ukitu goiko eskuineko aldean dagoen mikrofonoa (...). Mikrofonoaren ikonoa duen elkarrizketa-koadro bat irekitzen da. Esan erabili nahi duzun ahots-ekintza.
 - 2** Hitz egitez amaitu ondoren, ahots-bilaketak esandakoa aztertzen du eta ekintza abiarazten du. Googleren ahots bidezko bilaketak zuk esandakoa ulertu ez badu, zuk esandakoaren antza duten hitzen eta bilaketa-jarduereen zerrenda bat bistaratzen du, eta horietako bat hautatu dezakezu bilaketarekin segitzeko. Ahots-ekintza batzuek (adibidez, “mezu elektronikoa bat bidali” eta “oharra norberarentzat”) orri bat irekitzen dute ekintza ahoz edo informazio gehiago idatziz osatu dezazun.
- Ukitu orrian sartu duzun testua, testu gehiago eransteko edo testu hori ahoz nahiz idatziz osatzeko.

Testua idatzi beharrean ahoz esateko, lehenengo ukitu Pantailaren ezkerreko beheko aldean, teklatuaren ondoan, dagoen mikrofonoaren tekla.

- Ukitu azpimarratutako hitza edo esaldia edo arrastatu hitz-sortaka, beste transkripzio posible batzuen zerrenda ikusteko edo ahoz edo idatziz editatzeko

Transkripzioa egokia dela argi dagoenean, testu arrunt gisa bistaratzen ditu tran ahots bidezko bilaketakskribatutako hitzak. Aukerako transkripzioa duten hitzak edo esaldiak azpimarratuta bistaratzen dira.

- Ukitu leihoaren beheko aldeko botoi bat aukerako edozein eremu gehitzeko (jatorrizko →ahots-ekintzan ere aipa dezakezu eremu horien izena eta edukia).
- Amaitu duzunean, ukitu jarduera amaitzeko dagokion botoia. Adibidez, Enviar.

Honekin lotutako gaia:

[Ahots-ekintzen komandoak](#)

Ahots-ekintzen komandoak

Ahots-ekintzek aukera ematen dute testu-mezuak lagunei bidaltzeko, toki batera iristeko jarraibideak jasotzeko, mezu elektronikoak bidaltzeko eta, zure telefonoari hitz eginez jarduera ugari egiteko.

Adibidez, hau esan dezakezu:

- “Establecer alarma a las 8:30a.m.”
- “Enviar correo electrónico a Marcus Foster”. Gaia: Gauean etorriko zara? Mezua: Arratsaldean zu ikustea espero dut.
- “Navegar hacia Mike’s bikes en Palo Alto”

Ahots-bilaketak zuk esandakoa ulertzen ez badu, aukerako esanahi-zerrenda bat bistaritzen du. Nahi duzuna ukitu besterik ez duzu egin behar.

Ahots-ekintza hauekin bilaketak egin ditzakezu zure telefonoan edo telefonoa kontrola dezakezu.

Esan

Bilatu nahi dituzun hitzak

“Llamar”

Ondoren

Kontaktuaren izena, eta, aukeran:
“casa”, “móvil” edo “trabajo”

Adibidez

“bizikletako oinetakoak”

“Llamar a Mike LeBeau a casa”

Mapa	Helbidea, izena, enpresaren izena, enpresa-mota edo kokapen bat	“Mapa del Parque Golden Gate, San Francisco”.
“Cómo llegar a” edo “Navegar hacia”	Helbidea, izena, enpresaren izena, enpresa-mota edo beste helmuga bat	“Indicaciones a 1299 Colusa Avenue, Berkeley, California” edo “Ir a Union Square, San Francisco”.
Kontaktuaren izena		“Mike LeBeau” (Mikeren kontaktu-txartela irekiko du)
“Llamar”	Telefono-zenbakiaren digituak	“Llamar al 650 555 1234”
“Llamar”	Enpresaren izena	“Llamar a guardería local nativa”
“Ir a”	Bilatu katea edo URLa	“Ir a Google.com”
“Enviar SMS” edo “Enviar mensaje de texto”	“Para:” eta kontaktuen izenak, “Mensaje” eta mezuaeren testua (esan puntuazioa).	Enviar mensaje de texto a Hugh Briss, “mensaje: Berehala erakutsi nahi dizkizut oinetako berriak, puntua”

“Enviar correo electrónico”

Bat edo gehiago:
“Para:” eta kontaktuen izenak,
“CC:” eta kontaktuen izenak,
“CCO:” eta kontaktuen izenak,
“Asunto” eta testuaren gaia,
eta “Mensaje” eta mezuaren
testua (esan puntuazioa)

“Enviar correo electrónico a
Hugh Briss,
Asunto: oinetako berriak,
Mensaje: Berehala erakutsi
nahi dizkizut oinetako
berriak, puntua”.

“Nota propia”

Mezuaren testua

“Nota a mí mismo:
Ez ahaztu esnea”

“Establecer alarma”

“Hora” edo “durante” eta ordua.
Adibidez, “10:45 a.m.” Edo
“20 minutos a partir de ahora”,
“Etiqueta” eta alarmaren izena.

“Establecer alarma para las
7:45 p.m., etiqueta,
aldatu garbitzeko arropa
garbitzeko”

“Escuchar”

YouTuben bilatzeko hitzak;
adibidez, abesti baten izena,
artista bat edo bilduma bat.


“Escuchar: smells like teen
spirit”

Kontuak administratzea

Kontuak eranstea edo ezabatzea

Google-ko kontu bat baino gehiago eta Microsoft Exchange-ren ActiveSync kontu bat baino gehiago erabil ditzakezu. Baliteke beste kontu-mota batzuk ere gehitu ahal izatea, aplikazioaren arabera. Batzuk Kontuak eta pribatutasuna pantailan gehitu ditzakezu, hemen deskribatzen den moduan. Beste batzuk, berriz, kontu-mota horiekin funtzionatzen duten aplikazioen bidez gehitu ditzakezu. Adibidez, posta elektronikoko IMAP edo POP3 kontuak gehitu ditzakezu posta elektronikoaaren aplikazioarekin.

Cuentas y sincronización aukeraren konfigurazio-pantaila ikusteko:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Personal aukeran, ukitu **Kontuak eta pribatutasuna**

Kontuak eranstea

Kontuak eransteko, baliteke zure sistemaren administratzaileari xehetasun batzuk eskatu behar izatea kontua konektatzeko zerbitzuari buruz. Adibidez, agian, domeinuaren helbidea edo kontuaren zerbitzaria jakin beharko dugu.

1 Sartu hemen: **Ezarpenak > Pertsonalak > Kontuak**

2 Ukitu **Gehitu kontua**

3 Ukitu erantsi nahi duzun kontu-mota.

4 Segi pantailako jarraibideei, kontuaren informazioa sartzeko.


Kontu gehienetan, erabiltzaile-izena eta pasahitza behar dira, baina baliteke xehetasunak kontu-motaren eta konektatzen ari zaren zerbitzuaren konfigurazioaren arabera dira.

Kontu-motaren arabera, liteekan da sinkronizatu nahi dituzun datu-motak, kontuaren izena eta beste xehetasun batzuk eskatzea.

Amaitzen duzunean, kontua Kontuak eta pribatutasuna aukerako zerrendan egongo da. Kontua, mezu elektronikoak, kontaktuak eta beste zenbait informazio konfiguratu duzun moduaren arabera, zure gailuarekin sinkronizatzen hasiko da.

Kontu bat ezabatzea

Kontu bat ezabatzeko, kontua eta gailuan hari lotuta dagoen informazio guztia ezabatu behar duzu, posta elektronikoa, kontaktuak, konfigurazioa eta abar.

- 1 Sartu hemen: **Ezarpenak > Pertsonalak > Kontuak**
- 2 Hautatu ezabatu nahi duzun kontua.
- 3 Ukitu menuaren ikonoa  > **Amaitu saioa**

Honekin lotutako gaiak:

[Kontuak sinkronizatzeko aukerak konfiguratzea](#)


[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)


Kontuak sinkronizatzeko aukerak konfiguratzea

Edozein aplikazioren kasuan konfiguratu ditzakezu sinkronizazio-aukerak. Kontu bakoitzean sinkronizatu nahi dituzun datu-motak ere konfiguratu ditzakezu. Aplikazio batzuek (adibidez, Gmail eta egutegia) sinkronizazioa konfiguratzeko aparteko parametroak dituzte, kontrolerako aukera gehiago ematen dutenak. Kasu horietan, balio du konturako hautatzen duzun konfigurazioak.




Kontu batzuetan, sinkronizazioa bi noranzkoko da: gailuko informazioan egiten diren aldaketak webguneko kopian ere egiten dira. Googleko zure kontuak horrela funtzionatzen du. Beste kontu batzuek noranzko bakarreko sinkronizazioa onartzen dute: zure gailuko informazioa irakurtzeko bakarrik da.

Kontuak eta pribatutasuna aukeraren konfigurazio-pantaila ikusteko:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Personal aukeran, ukitu **Kontuak eta pribatutasuna**.

Aplikazio batzuek, sinkronizazioari dagokionez, beren konfigurazio-parametroak dituzte. Adibidez, Gmail aplikazioan mezuen sinkronizazioa kontrolatzeko, ukitu menuaren ikonoa  > **Etiketaren sinkronizazioa > Sinkronizatu mezuak**.

Sinkronizazio-konfigurazio orokorra ezartzea


- 1 Sartu hemen: Ezarpenak > Pertsonala > Kontuak
 irudiak adierazten du kontu bateko informazioaren zati bat edo informazio guztia automatikoki sinkronizatzeko konfiguraturuta dagoela.
 irudiak adierazten du kontuaren informazioa ez dagoela konfiguraturuta automatikoki sinkroniza dadin.
- 2 Aktibatu edo desaktibatu menuaren ikonoa  > **Autosink. Aplikazioaren datuak** gailuko edo webguneko datuetan egiten dituzun aldaketak automatikoki sinkronizatzen diren kontrolatzeko.

Automatikoki sinkronizatzeko aukera desaktibatzen baduzu, sinkronizazioa eskuz egin beharko duzu mezuak, mezu elektronikoak eta informazioa jasotzeko, eta ez duzu jakinarazpenik jasoko eguneraketak egiten direnean.

Adibidez, aukera hau aktibatzen baduzu, pertsonen aplikazioan egiten dituzun aldaketak automatikoki eguneratuko dira webguneko Googleren kontaktuetan.

Aukera hori desaktibatzen baduzu, litekeena da aplikazio baten tresnak erabili behar izatea datuak eskuz sinkronizatzeko. Eskuz ere sinkronizatu ditzakezu, mezuak, mezu elektronikoak eta informazioa jasotzeko. Sinkronizazio automatikoa desaktibatuta utziz gero, bateriaren iraupena luzatu egingo da, baina ez duzu jakinarazpenik jasoko eguneraketak daudenean.

Informazioa eskuz sinkronizatzea

- 1 Sartu hemen: Ezarpenak > Pertsonala > Kontuak
- 2 Ukitu sinkronizatu nahi dituzun datuak dauden kontua.
- 3 Ukitu menuaren ikonoa  > **Sinkronizatu**.

Kontu bat sinkronizatzeko konfigurazioa aldatzea

- 1 Sartu hemen: **Ezarpenak > Pertsonala > Kontuak**
- 2 Ukitu sinkronizazioko konfigurazioa aldatu nahi duzun kontua.
- 3 Sinkronizazioaren ezarpenak pantaila irekiko da, eta kontuak sinkroniza dezakeen informazio-motaren zerrenda bistaratuko da.

Behar dituzun elementuak aktibatu edo desaktibatu ditzakezu.

Aukera bat desaktibatzen baduzu, ez da gailuko informazioa ezabatuko: bakar-bakarrik webgureko bertsioarekin sinkronizatzea galaraziko du.

Honekin lotutako gaia:


[Kontuak eranstea edo ezabatzea](#)

[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)

Segurtasun-kopiak egiteko aukerak aldatzea eta berrezartzea

Konfigurazioaren eta Googleko kontu batekin edo gehiagorekin lotutako beste datu batzuen segurtasun-kopiak egin ditzakezu. Zure gailuaren fabrikako ezarpenak berrezarri behar badituzu, segurtasun-kopia egin diozun edozein konturen datuak berrezar ditzakezu.

Konfigurazio-parametro horiek ikusteko:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Personal aukeran, ukitu **Babeskopiak eta berrezartzea**

Honako aukera hauek daude:

- **Egin nire datuen babeskopia.** Aukera hau hautatuz gero, zure datu pertsonal ugariren segurtasun-kopia bat egingo da: WiFi-aren pasahitzak, nabigatzailearen laster-markak, denetik instalatutako aplikazioen zerrenda, Pantailan teklatuko hiztegi gehitutako hitzak eta pertsonalizatutako konfigurazioko aukera gehienak. Baliteke hirugarrenen aplikazio batzuen ezaugarri hori ere baliatzea, aplikazioa berriro instalatuz gero datuak berrezar ditzazun. Aukera hau hautatzen ez baduzu, ez dira egingo zure datuen segurtasun-kopiarik, eta lehendik dauden segurtasun-kopia guztiak ezabatu egingo dira Googleko zerbitzarietatik.
- **Babeskopien kontua:** Informazioaren segurtasun-kopiak egiten zaizkien Googleko kontuak bistaratzen dira. Hari lotutako informazioa berreskuratzeko gailu berri batean edo berrezarritako batean horetako kontu batera edo gehiagotara sartu behar duzu.

Kontu berri bat eransteko, ukitu **Ezarri babeskopiak egiteko kontua > Gehitu kontua**

- **Leheneratze automatikoa.** Hautatu aukera hori konfigurazioa eta beste datu batzuk berrezartzeko aplikazioa berriro instalatzen duzunean. Funtzio honek behar du Google kontuarekin datuen segurtasun-kopi bat sortzea eta aplikazioak segurtasun-kopien zerbitzua erabiltzea.
- **Berrezarri jatorrizko datuak.** Ukitu aukera hau, eta, ondoren, Restablecer teléfono, barne-biltegian gordetako informazio pertsonal guztia ezabatzeko, hauek barne: Googleren kontuari buruzko informazioa, sistema eta aplikazioen konfigurazioa, deskargatutako aplikazioak eta musika, argazkiak, bideoak eta beste fitxategi batzuk.

Telefonoa berrezarri ondoren, lehen aldiz konfiguratu zenuenean sartu zenuen informazio berbera sartu beharko duzu. Googleren kontun baten datuen segurtasun-kopiak sortu badituzu, konfigurazio-prozesuan, horiek berrezartzeko aukera ematen du.

Hirugarrenen aplikazio batzuek ere erabiltzen dituzte segurtasun-kopiak, eta, beraz, horietako bat instalatuz gero, berriro berrezarri daitezke haren konfigurazioa eta datuak.

Honekin lotutako gaia:


[Zergatik erabili Googleren kontu bat?](#)

Telefonoa babestea

Pantailaren blokeoa konfiguratzea

Telefonoari ematen diozun erabileraren arabera, baliteke Pantaila automatikoki blokeatzeko aukeraren bat konfiguratu nahi izatea, baimenik gabe inork erabil ez dezan. Pantaila blokeatzeko aukeraren bat konfiguratu baldin bada, telefonoa blokeatu egiten da telefonoaren pantaila inaktibo dagoenean.

Telefonoaren blokeo-konfigurazioa ezartzeko:

- 1** Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien Pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2** Ukitu **Pertsonala > Segurtasuna > Pantailaren blokeoa**
- 3** Ukitu blokeatzeko modua eta segi Pantailan agertzen diren jarraibideei.

Aurretik blokeatzeko moduren bat jarrita baldin baduzu, blokeatze-konfigurazioa desblokeatzeko eredia, PINa edo pasahitza sartu beharko duzu.

Blokeatzeko aukera hauetako bat hauta dezakezu (gutxi gorabehera, babesaren arabera daude ordenatuta):

- **Pasatu hatza** aukerak ez du babesten, baina aukera ematen du Pantaila nagusira bizkor sartzeko edo kamera irekitzeko eta argazkiak berehala ateratzen hasteko.
- **Aurpegi bidezko desblokeatzeak** aukera ematen du telefonoari begiratzean hura desblokeatzeko. Blokeatzeko modua hau ez da oso segurua.
- **Ereduak** aukera ematen du hatzarekin eredu erraz bat eginda telefonoa desblokeatzeko. Aukera hau Desbloqueo facial baino seguruagoa da.
- **PINak** lau edo zenbaki gehiago izan behar ditu. PIN luzeenak dira seguruena.
- **Pasahitzak** lau letra/zenbaki edo gehiago izan behar ditu. Aukera hau seguruena da, baldin eta pasahitz zail bat sortzen baduzu.

Garrantzitsua

Babes onena lortzeko, aukeratu hauek dituen pasahitz bat:

- Gutxienez 8 karaktere.
- Zenbaki, letra eta ikur bereziak dituen konbinazio bat.
- Ez du ezagutzeko moduko hitzik edo esaldirik.

Honi lotutako konfigurazio-parametroak

Ezarpenak > Gailua > Bistaratzea > Ezarri egonean moduak

Ezarpenak > Pertsonala > Segurtasuna > Erakutsi eredua

Honekin lotutako gaiak:

[Blokeo-pantaila erabiltzea](#)

[Zure telefonoa enkriptatzea](#)

Zure telefonoa enkriptatzea

Zure telefonoko datu guztiak enkriptatu ditzakezu; esate baterako: Googleko kontuak, aplikazioen datuak, musika eta bestelako fitxategi batzuk eta deskargatutako informazioa. Hala eginez gero, zenbakizko PIN bat edo pasahitz bat sartu behar duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean. Kontuan izan zure telefonoa enkriptatu gabe desblokeatzeko erabiltzen duzun PIN edo pasahitz bera dela hori, eta ezin daitekeela bereiz ezarri.

Abisua!


Enkriptazioa atzeraezina da. Telefonoan enkriptazioa leheneratzeko aukera bakarra da fabrikako datuak berrezartzea. → Aukera horrek datu guztiak ezabatzen ditu.

Enkriptazioak are gehiago babesten du telefonoa, lapurtzen baldin badizute, eta erakunde batzuetan nahitaezkoa izaten da edo aholkatu egiten dute. Aktibatu aurretik, galdetu zure sistemaren administratzaileari. Kasu askotan, enkriptaziorako konfiguratu zenuen PINa edo pasahitza sistema-administratzaileak kontrolatzen du.

Enkriptazioa aktibatu aurretik, presta zaitez honela:

- 1** Ezarri blokeo-Pantailarako PINa edo pasahitza.
- 2** Kargatu bateria.
- 3** Entxufatu telefonoa.
- 4** Programatu ordu bat edo gehiago enkriptazio-prozesurako: ez duzu eten behar, bestela, datu batzuk edo datu guztiak gal ditzakezu.

Enkriptazioa aktibatzeke prest zaudenean:

- 1 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2 Ukitu **Pertsonalak > Segurtasuna > Enkriptatzea > Enkriptatu telefonoa**
- 3 Irakurri adi enkriptazioari buruzko informazioa.

Enkriptatu telefonoa botoia moteldu egiten da bateria ez baldin badago kargatuta edo telefonoa ez baldin badago entxufatuta. Telefonoaren enkriptazioari buruzko iritzia aldatuz gero, sakatu Atzera botoia.

Abisua!

Enkriptazio-prozesua eteten baduzu, galdu egingo dituzu datuak.

- 1 Ukitu **Enkriptatu telefonoa**
- 2 Idatzi blokeo-pantailaren PINa edo pasahitza, eta ukitu **Jarraitu**.
- 3 Ukitu berriro **Enkriptatu telefonoa**.

Enkriptazio-prozesua martxan jartzen da eta aurrerapen-maila bistaratzen da. Enkriptazioak ordubeste edo gehiago iraun dezake. Denbora horretan, telefonoa behin baino gehiagotan berriaraz daiteke.

Enkriptazioa amaitzen denean, PINa edo pasahitza sartzeko eskatuko dizu.

Ondoren, PINa edo pasahitza sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean, hura desenkriptatzeko.

Ziurtagiriek in lan egitea


Ziurtagiri digitalak erabil ditzakezu zure gailua zenbait helburutarako identifikatzeko; besteak beste: VPN edo WiFi sareetarako sarbidea eta zerbitzarietan posta elektronikoa edo nabigatzailea edo beste aplikazio batzuk autentifikatzea. Zure gailua identifikatzeko ziurtagiri bat erabiltzeko, zure sistema-administratzailearen bidez lortu behar duzu eta gailuaren konfiantzazko egiaztagirien biltegian instalatu.

Androidek onartzen ditu DER kodeketa duten eta .crt edo cer luzapeneko fitxategietan dauden X.509 ziurtagiriak. Zure ziurtagiriaren fitxategiak .der luzapena edo beste bat baldin badu, .crt edo .cer luzapenera aldatu beharko duzu; bestela ezingo duzu instalatu.

Androidek PKCS#12 formatuko gako-dendetako fitxategietan .p12 edo .pfx luzapenarekin gordetako X.509 ziurtagiriak ere. Zure gako-dendak beste luzapen bat baldin badu, .p12 edo .pfx luzapenera aldatu beharko duzu; bestela ezingo duzu instalatu. Gako-denda bateko PKCS#12 ziurtagiria instalatzen duzunean, Androidek denda horren pasahitz pribatuak edo ziurtagiri-erakundeak ziurtagiriak (CA) ere instalatzen ditu.

Bezere-ziurtagiriak eta CA-ziurtagiriak instalatzea

Telefonoaren barne-biltegitik ziurtagiri bat instalatzeko:

- 1 Kopiatu ziurtagiria edo gako-dendak ordenagailutik gailuaren barne-biltegiaren oinarrira (hau da, ez gorde karpeta batean).
- 2 Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien Pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 3 Sartu hemen: **Pertsonalak > Segurtasuna > Kredentzialen biltegia > Biltegiatze mota**
- 4 Ukitu instalatu nahi duzun ziurtagiriaren edo gako-dendaren fitxategi-izena. Instalatu ez dituzun ziurtagiriak bakarrik bistaratuko dira.
- 5 Esaten baldin badizute, idatzi gako-dendaren pasahitza, eta ukitu **Ados**.
- 6 Idatzi ziurtagiriarentzako izena, eta ukitu **Ados**.

Normalean, CAren ziurtagiri bat instalatu behar da, bezeroaren ziurtagiriarekin datorrena. CA independenteak ere instalatu ditzakezu ondorengo pausoak emanda.

Oraindik zure gailurako eredurik, PINik edo pasahitzik ezarri ez baduzu, hori egiteko eskatuko dizu. Zure sistemaren administratzaileak azlde aurretik ezar dezake zer blokeo-mota den onargarria.


Orain erabil dezakezu sare seguru batera konektatutakoan edo posta elektronikoa, nabigatzailea edo beste hirugarren baten aplikazioak autentifikatzeko instalatutako ziurtagiria. Ziurtagiri bat ondo instalatu ondoren, biltegiako kopia ezabatu egingo da.

Garrantzitsua

Ziurtagiriak onartzen dituzten aplikazioek (adibidez, posta elektronikoa eta nabigatzailea) aukera ematen dute aplikaziotik bertatik zuenean ziurtagiriak instalatzeko. Informazio xeheagoa ikusteko, ikusi aplikazioekin datozen laguntza eta jarraibideak↵.

CA ziurtagiriekin lan egitea

Ziurtagiri-erakunde baten ziurtagiri bat (CA) arriskuan badago edo zure erakundeak ez badu harengan konfiantzarik, ezgaitu edo ezabatu egin dezakezu. Hori egiteko, eman ondorengo pausoak:

- 1** Pantaila nagusi batean edo aplikazio guztien Pantailan, ukitu konfigurazio-ikonoa 
- 2** Sartu hemen: Pertsonalak > Segurtasuna > Kredentzialen biltegia > Biltegiratze mota > Kredentzial fidagarria. Kredentzial fidagarria pantailak bi fitxa ditu:
Sistema: telefonoaren ROMean era iraunkorrean instalatzen diren ziurtagiri-erakundearen (CA) ziurtagiriak bistaratzen ditu.
Erabiltzailea: norberak instalatutako CA ziurtagiriak bistaratzen ditu; adibidez, bezero-ziurtagiri bat instalatzeko prozesuan.
- 3** CA ziurtagiri baten xehetasunak ikusteko, ukitu haren izena. Pantaila lerragarri batek xehetasunak bistaratzen ditu.
- 4** CA ziurtagiri bat ezabatzeko edo desaktibatzeko, mugitu xehetasunen Pantailaren beheko aldera eta ukitu **DESGAITU** sistemako ziurtagirietarako edo **EZABATU** erabiltzaileen ziurtagirietarako.
Sistemako CA ziurtagiri bat desgaitzen duzunean, xehetasunen Pantailako beheko aldeko botoia aldatu egiten da eta Habilitar agertzen da; beraz, ziurtagiria berriro gaitu dezakezu, behar izanez gero. Erabiltzaileak instalatutako CA ziurtagiri bat ezabatzen baduzu, behin betiko ezabatuko da, eta berriro instalatu beharko duzu berreskuratu nahi izanez gero.
- 5** Berresteko bistaratzen den elkarrizketa-koadroan, sakatu ADOS.